


On Jose Maria Arizmendiarieta

Gogoetak



OTALORA



On Jose Maria Arizmendarrieta

Gogoetak

1. Pertsona	11
1.1. Pertsonaren duintasuna.	12
1.2. Pertsona, oinarria eta xedea.	13
1.3. Idealak.	16
1.4. Gizona, emakumea, zaharra, haurra.	18
2. Askatasuna	23
2.1. Askatasuna, gizatasuna.	24
2.2. Askatasuna eta elkartasuna.	24
2.3. Askatasuna eta diziplina.	26
2.4. Demokrazia kooperatiboa.	27
3. Erantzukizuna	29
3.1. Erantzukizuna eta autogestioa.	30
3.2. Erantzukizuna eta elkartasuna.	31
4. Morala	35
4.1. Giza heldutasuna.	36
4.2. Kristautasuna.	39
5. Hezkuntza	43
5.1. Kultura eta nortasuna.	44
5.2. Kultura eta emantzipazioa.	45
5.3. Hezkuntza eta kooperatibismoa.	50
6. Bizitasunaren ezaugarria	53
6.1. «Beti dago pauso bat gehiago egiteko».	54
6.2. Kooperatibismoa esperientzia bat da.	56

1. Lana	63
1.1. Lanaren duintasuna.	64
1.2. Lana humanizatu.	66
2. Batasuna	69
2.1. Giza oinarria.	70
2.2. Oinarri ekonomikoa.	71
2.3. Elkartasuna.	73
3. Utopia eta iraultza	79
3.1. Utopiaren arriskua.	80
3.2. Iraultza.	82
4. Errealismoa eta ordena berria	87
4.1. Arrazionaltasuna.	88
4.2. Etorkizunaren ikuspegia.	91
4.3. Ordena kooperatibo berria.	93
5. Enpresa kooperatiboa	97
5.1. Espiritu kooperatiboa.	98
5.2. Gestio kooperatiboa.	101
5.3. Langileak eta enpresaburuak.	105
5.4. Beti garatzen ari den esperientzia.	111
Ohar bibliografikoa	117

Arizmendiarietaren esaldi eta gogoeten sorta hau Joxe Azurmendik ha-
ren idazkietatik bildua da.

© Otalora (Azatza)

E.F.A. (JAKIN)

Erreg. zk.: 1.692

Lege gordailua: BI-987/2013

Diseinua: Josan Martínez Esquíroz

Inprimatzea: mccgraphics, S. Coop. Loiu (Bizkaia)

Euskara: EMUN, Koop. E.

Gizon handiek beren benetako giza taila ikusteko nahikoa perspektibarekin begiratzen zaienean hartzen dute beren benetako dimentsioa gure aurrean. Denboraren distantziak gizon handiak laudatu eta modaren huskeriak lausotu egiten ditu ezinbestean.

Urteen joan-etorria baremo ona da ideia onen sakontasuna eta egokitasuna ebaluatzeko.

Jose Maria Arizmendiarrietaren pentsamendu batzuk jasotzen dituen liburuxka honen berrinprimaketak haren aitzindari-tza zuzen eta ukaezinari merezi dituen aitorten eta onarpena eman nahi dizkio.





I.

Gizakia eta gizartea

Apaiz honen ustez berak egiten eta predikatzen duena ez dago giza errealitateen alor honetan dagokionetik kanpo; izan ere, justizia eta maitasun izaera eta jarrera berrien premia baino ez da, eta uki daitezkeen errealitateen forma har dezakete, gizakiaren neurrira, irabazi, onura eta interes egoista itxia baino gehiago den zerbaiten erantzun gisa. Edozein modutan ere, badakigu zeren alde dauden normalean indar boteretsu eta indaritsuak: herria, masak, lehenagoko askok, oraingoak eta ondorengoak, alboan justizia, arrazoi, eta indar moral gutxirekin egon daitezke, eta (...) “botere falta ez da, guztia-ekin, aurrera egiten uzten ez diena, jakinduria falta baizik, jakinduriaren ondorioa baitira egiaren mezularien betierekotasuna eta gaurkotasuna, nahiz eta batzuek esan horrek jatekorik ematen ez duela. Mezulariak behar dira, mezuak objektiboak izan behar dira, eta eztabaida daitekeena ez da *nor den mezularia, mezuak dioena* baizik, mezua baita belaunaldi bakoitzari errepikatu behar zaiona.

002



10

Pertsona

Arrasateko gazteriaren ideala da herri hau Gipuzkoako herri industrialen eredu bihurtzea (1941). 001

1.1. Pertsonaren duintasuna

Ezin da justiziaz jardun gizakien duintasuna zer den ez dakitenean artean. 003

Gizakiak estomagoaz eta premia materialez aparte badu bere duintasunaren gero eta kontzientzia definituago bat. 004

Gizakia goseagatik eta neke fisikoagatik ez ezik, gogaitasunagatik eta tristuragatik eta bizitzan ilusio eta poztasunik ez izateagatik ere hiltzen da. 005

Despentsa gehiago edo gutxiago hornituta izanda ere, horrek ez du enpresa batean dauden gizakien gogoia aseko. 006

Ezinbestekoak dira erreforma asko eta, are ezinbestekoagoa, pentsaeren aldaketa bat jarduera ekonomikoa bere giza helburura iristea nahi badugu. Gizakia da, hitz batean, jarduera ekonomiko eta sozial guztien egilea, muina eta helburua. 007

Alderdi soziala alderdi ekonomikoak egiaztatu beharko du, eta, modu berean, alderdi ekonomikoa alderdi sozialak egiaztatu beharko du. 008

Kontua da jakitea ea duintasunez bizi gaitzekoen, eta duintasunez bizitzea da geure buruaz balia ahal izatea. Alderdi horri dagokionez, edozein paternalismok ezin gaitu pozik utzi, eta paradisu itxiek ere ezin gaituzte ase utzi, izaki libre garen heinean. 009

Zintzotasuna instituzionalizatzea da helburua. Are gehiago: helburua da gizakien handitasuna instituzionalizatzea. 010

Komunitate baten baitan bizi gara, gizon-emakumeen herri batean, eta ez proletarioen herri batean. 011

Egia da, peoi arima dutenak hobe da peoi geratzea, baina ezin dugu pentsatu peoi arima bakarrak klase apalean hazten direla. 012

Duintasunean sinistea ez da protesta egitea, eskubide batzuk errespetatzea baizik. 013

Ongiak eta justiziak, edozein tokitan eta edozein kolorekin estalita aurkitzen dituzula ere, besarkada bat eta entrega bat erreklamatzeko dute. Hori egiten ez duena ez da gizakia, eta are gutxiago kristaua. 014

Askatasuna, independentzia eta nortasuna dira gizakiak barru-barruan duen eta kontzientzia izenez ezagutzen dugun hori, gizakiek berezkoen dutena eta beraien mamia. 015

Gizarte aberatsa eta egonkorra da erakunde bizi eta gizaki inteligente eta libreek mugitutakoek osatuta dagoena. Horren moduko hiritarrak sustatzeko, ondo legoke ahaleginean laguntzea nahi ditugun guztiak hiritartzat hartzen hastea. 016

1.2. **Pertsona, oinarria eta xedea**

Arazo ekonomiko, politiko eta sozial guztiak, azken finean, gizakiaren arazoa baino ez dira. 017

Bizitzan zerbait ikasi badugu, guztiaren oinarritzko faktorea gizakia dela izan da. Bere kalitatea eta bere gogoia. 018

Gizakiaren ahalmenetan gehiago sinesteko eta horiekiko itxaropen handiagoa izateko gai dena, bera izango da humanitateari aurrera bultzatzen egiten jarraitzeko gaitasuna izango duena. 019

Aurrera egiteak gehienek laguntza behar du, baina aurretik gutxienezko sormenezko bultzada eta bultzada berritzailea izanda. Hortaz, komeni da haien laguntza inertziaren, ohituraren pisua baino handiagoa izatea; urrutirago ikusi eta formula berriak deskubritu eta aplikatu dezaketenez gutxienez energia berritzaileak barneratu eta zirkulazioan jarrita berpiztu behar da. 020

Gizakia energia handi bat da. Norbaitek bideratzea behar du, atsegin zaizkion enpresak bere neurrira eskaini eta bere eskura jartzea behar du, bere bizitzarekin konbentzitzen duten gizakiak behar ditu. 021

Gizakia guztiaren oinarria da; gizakia nolakoa gizartea halakoa. Gizakia edo gizakiak zuzen, zintzo, eskuzabal, prestu, ondraduak badira, gizartea ere zuzen, zintzo, eskuzabal, prestu, ondradua izango da. Esango nuke, halaber, gizartea edo alderdi soziala dela gizakiek benetako bertuteak dituztela erakusten duen termometrorik hoberena. 022

Lehenengo gizakiak eta, ondoren, kooperatibak. 023

Interesgarria dena eta funtsezkoa ez dago Kooperatibetan, kooperatibistengan baizik; ezta demokrazian ere, demokrazian baizik. Ideietan baino gehiago, bizipenetan. 024

Toki batean bere duintasunaz ohartzen diren gizakiak, askatasuna maite dutenak eta justizia sozialaren eskakizunei erantzun eta denontzat berdina den elkartasun erregimen bat onartzeko gai direnak baldin badaude, hortxe egingo ditu erroak kooperatibismoak eta hortxe itxaron daiteke kooperatibak fruitu onak ematea. 025

Formula sozialak eraginkorrak izango dira formula horiek hartzen dituzten pertsonak formula horien mailan dauden bitartean. 026

Gizatasuna, gizakia (izaki inteligentea, librea eta arduratsua) egitura eta espiritu kooperatiboaren ardatza da. 027

Promozioko edo kontsumismo ergeleko zer lasterketatan sartuta gaude? 028

Garapen ekonomikoa ez da helburua guretzat, bitartekoa baizik. 029

Kooperatibismoaren ideala jendea gizatiarragoa egitea da, eta gizakia animaliangandik bereizten duen ezaugarri nagusia arrazionaltasuna eta askatasuna badira, geure burua eta besteena gizatiarragoa egitea gu geu askeago, inteligenteko, kontzienteago eta arduratsuago bihurtzea izango da nagusiki, natura gehiago menperatzen duten eta naturaren hain esklabo ez diren pertsonak egitea. Bai miseria bai ugaritasuna esklabotasunaren formak izan daitezke, benetako gizatasuna eta espirtu askatasuna falta direnean. 030

Bere gaitasunak bakarrik produkziara bideratuta lantzen dituen gizakiak, makina produktiboaren esklabo bihurtzen ari da bere burua inolako sentimendurik gabe eta halabeharrez. 031

Bizitzea eta lan egitea merezi du baina ez bakarrik irabazteko edo norbere eskuetan aukerak pilatzeko. Elkarbizitza, bakea, justizia, ulermena, samurtasuna, senidetasuna, bilatu eta lortu beharreko gauzak dira, eta horiek borroka mundu batean benetan lortzeko beharrezkoa da lan egiten duten eta borroka egiten duten pertsonak bide berean jartzeko beste modu bat asmatzea. 032

Guretzat gizakia ez da tanta huts bat, giza helburu batzuk lortze aldera bere nortasunari eta indibidualtasunari eusteko ahalginei uko eginda itsasoan bukatuko den tanta huts bat. 033

Sinistu egin behar dugu benetako aberastasuna gure nortasunaren garapen integralean dagoela. Hori lortzen ez dugun bitartean, ondasun materialak modu zuzenean banatzea lortuta badugu ere, esklabo izaten jarraituko dugu. 034

Hasi eta buka dezagun gizakiarengan. Natura, bere bizi-tza, bere eskubide eta bere betebeharrak gehiago kontrolatzen dituen gizona; hitz batean, *Gizakiago* den norbait. 035

Hitz batean, munduan planteatutako arazo eta kezka guztiak gizakia baino ez direla esan daiteke. 036

1.3. Idealak

Gizakien errebeldia gaindiezina da beti. 037

Lurrerantz gehiegi kurbatuta dagoen gizateria, berriro altxatu behar da eta zerurantz begiratu. 038

Gizakia ito egiten da denborak markatutako aukera hutsak, aukera mugatu hutsak baino ez baditu. 039

Zer da gizakia? Izaki ez perfektu bat. Hobetu daitekeen izaki bat. Eraldatzea, eta ez begiratzea, helburu duen izaki bat. Nork bere burua eraldatzea, inguruan duena eraldatzea. 040

Bihotzez jardun behar da, burua bere tokian edukita. 041

Gizakien gogoaren barru-barruan badago zerbait finkoa eta betikoa dena, baina badago ere beste zerbait mugitzen egon behar dena zerbait berri eta gorago dagoenerantz hedatuta,

gizakiaren barne erregenerazio eta erregenerazio sozialarekin bat etorri, eta horregatik gizartean egiten duen guztian eraldaketa hori nabarmendu behar da. 042

Mundua ez zaigu eman bakarrik begiratzeko, eraldatzeko ere eman zaigu, eta eraldaketa hori ez da eskuekin egingo, lehenengo ideiekin eta ekintza planekin egingo da. 043

Ideiak ez dira hiltzen, eta ideial batzuei leial izanda hiltzen diren gizakiek, gehienetan, beren ideiek oihartzuna izaten eta beste ideia berri batzuk sortzen laguntzen dute. 044

Duela ehunka urte maisuen eskuek idatzi zuten musika entzuten dudanean. Urteak joan urteak etorri ahaztu ezin ditudan eskulturak eta koadroak ikusten ditudanean. Existitzen ez diren gizakien eragina oraindik sentitzen dugunean: uste dut gauza eder horiek sortu zituztenak oraindik bizirik daudela. Beren bidearen bukaeran heltzerakoan, heriotzan atsedena hartu zuten... Hil gabe. 045

Zalantzarik gabe, hobe da zorigaiztoko gizaki bat izatea zerrri asebate bat baino, pozik dagoen Sokrates, Pablo, Frantzisko bat pozik dagoen zoro bat baino. 046

Gizaki meharrak, funtsik gabeak, bizitzeagatik nahigabetuta dauden gizakiak, sendo eta irmo den ezer eraikitzeke gai ez diren gizakiak. 047

Zoriontsu izateagatik kexu diren asko beraiengatik baino ez lirateke kexu izan behar. 048

Sintomarik tristeena ez da akatsa egitea bera; izan ere, akatsa interesarekin, gogoarekin egiten bada, zerbait espero genezake. Tristeena da egiaz ez arduratzea, luxuzko artikulua edo antzeko zerbait dela ustea. 049

Kanpoko arazoak konpontzen buru-belarri dabilen gizaki hori ez da konturatzen barruan beste arazo batzuk dituela, eta horiek agian, eta bestela ere, besteak bezain garrantzitsuak dira, bere ongizatea, oraindik ere materiala dena, arazo horien konponbidearen menpe dagoelako. 050

Barruan Jaungoikoaren izenean torturatzen gaituena darماغu. 051

Orainalditik baino gehiago etorkizunetik bizi izatea ez da luxua, premia baizik. 052

Gizakiak itxaropenak eta betiko izateko gogoia behar ditu bere existentzia jasan ahal izateko. 053

Ideal nagusiek ez dute zertan eskuragarri izan baliagarri izateko. 054

Bizitza usain edo perfume baten antzekoa da, behin barreiatuta ezin da berriro kontzentratu edo berreskuratu. Nola ez naiz, bada, ohartuko nola inbertitzen dudan? 055

1.4. **Gizona, emakumea, zaharra, haurra**

Gure herria gizakiaren presentzia bakarrarekin ahuldu egiten da. 056

Beti arreta egiten diegun eta buruan ditugun besteak, guggan guk geuk baino gehiago pentsatzen dutenak, seme-alabak dira. 057

Gure herriak haurren dibertsio eta jolas premiei bizkarra emanda eraikitzen dira: helduok, halere, gure aisialdi lekuak ditugu, baita estadio izugarriak ere. 058

Gure aurreikuspen eta hiri proiektzioetan “Debekatuta dago jolastea” diotenen moduko errotuluak jartzeko euskarriak baino ez daude. 059

Gure zibilizazioan dilista plater baten truke saltzen den herentzia bat haurra izan ohi da sarritan. 060

Gure gizartean, oraindik ere, nabarmena da haurrei eta zaharrei zuzentzen zaizkien arreta eta laguntza aukeren prekarietatea. Nahikoa da eskolan klaserik ez dagoen egunetan edo eskola oporren garaian ateratzea ikusteko trabarik handiena haurrak direla. Izan ere, hara-hona ibili ohi dira, gure gizartean *kaiolak* eta *gelak* baino ez daudelako, horietaz aparte ez dago ezer aurreikusita haurrek beren denbora libreaz arriskurik gabe gozatu ahal dezaten edo, hobeto esanda, modu aktiboan eta hezitzailean, lagun artean edo komunitatean, goza dezaten; oraindik ez dira asmatu haientzako dantzalekuak. 061

Gizakiaren sentikortasuna eta samurtasuna bi polotan nabarmentzen da: Hautzaroan eta Zahartzaroan, bizitzaren bi poloetan, alegia. 062

Ez dauka zentzurik ikusteak nola aktibo dauden pertsona batzuek, osasunez primeran egonda, gauek goizera autoritatea, autonomia, bizipoza galtzen dituzten eta traba egiten duten pertsona bihurtzen diren, gutxietsiak, eta lausengu eta mimo sistematikoak baino ez dituzten jasotzen. 063

Ez erretiroa hartzeari. 064

Modu batzuek pisu handia dute, eta horra hor zergatik gizona, animalia inteligentea dena baina prebendetan finko errotuta dagoena, nahita saiatzen den bere nagusitasunari eusten, hain zuzen ere boterearen eksklusibotasunean oinarrituta eta abileziak formulatutako lege batzuen laguntzarekin lortutako

nagusitasunari, nagusitasun hori mendetan eta oposizio berezirik gabe berrantolatuta izateraino, ez bada matriarkatua garairen batean edo beste matriarkatuak agindu zeneko garairen batean edo beste, baina horiek noizean behin izan dira eta ez dute garrantzi handirik izan. 065

Emakumearen posizioa da, gizarte guztietan, bere garapen mailaren neurri zehatza. 066

Emakumeek kontzientzia sozial gutxi badute, hori da gure komunitateak kontzientzia gutxi duelako. 067

Emakumea kexu da kontuan hartzen ez dutelako eta berak dituen ahalmen eta gaitasunak gutxiesten dizkiotelako. Egia da, baina, neurri batean, hauxe galdetu beharko lioke bere buruari: zer egiten dugu baldintza beretan egoteko? Ez da nahikoa negar egitearekin zorte txarra dutela esanda; borroka egin behar dute dagokien posizioa konkistatzeko, baina ez-tietan eta ozpinetan egonda. 068

Gizonok ez dugu eskubidea, zehatzago esanda, ez dugu behar besteko arrazoi moralak emakumeen portaera kritikatzeko, gu geu gara-eta gizartea hala antolatu dugunok emakumeek konpartsa zeregina baino izan dezaten, eta, politago edo zatarrago, apaingarri baino izan ez daitezen gizartearen erregea, gizona, pozik uzteko. 069

Gure pentsaera itxiaren biktimak gara, emakumeek dituzten ahalmenak eta oso prozesu operatorio ezberdinetara moldatzeko duten gaitasuna epaituta. Geure barruan, pozik sentitzen gara gure emakumeak heldugabetzat hartuta, lanaren eta gizonaren aurrean beti ahul ikusita. Baliteke guk geuk gaixotasun moduko nagusitasun sentimendua edukitzea. 070

Zientziaren garaipen handiek salbazio txikienik ez duten izakienetako bat salbatzeko balio izan dute: emakumea. 071

Gure ustez ez dago gauza zentzugabeagorik emakumea etxearen esklabo izatera behartzea, etxetik ihes egitera bultzatzea baino. 072

Gizonek eta emakumeek elkarren beharra dute jarduera eta gizakiaren bizitzaren maila guztietan, eta, ondorioz, gizartean emakumearen laguntzarik gabe aurrera egitea da hanka bakarrez korrika egin nahi izatea. 073

1. Pertsona



20

Askatasuna

2. Askatasuna

2.1. Askatasuna, gizatasuna

Gizatasunik ezin daike loratu Askatasun gabe, ta askatasun gabe irabazi edo eskuratu daikegun ogia garratza baño ezin izan leike. [sic] 074

Lanean edo lanerako ondo ornitzen ditugun gizonak dira gure erria askatu ta jasoko daben gudariak. Gizonen eta erriaren askatasun-egarri ez gara gizonki jokatzeko ta beti zintzotasunean bizitzeko eskubide orixe bear dogulako baño. [sic] 075

Ez dago giza buruzagirik, ez dago giza ahalmenik ate hori gaintitu ahal izateko, nire bihotza menperatu ahal izateko, ez maltzurkeriaz ez biolentziaz. 076

Oinarrizko justiziaren lehen forma da batzuek besteekin erabili behar duguna elkarri izaki librea garella onartuta. 077

Askatasun pertsonala ez da irmoa izango morrontza kolektiboa gaintitzera bideratuta ez badago. 078

Askatasuna karga astuna da eta bakarrik bizitzaren arlo guztietan parte hartzera trebatuta lor daiteke karga hori ondo eramatea. 079

Batasuna eta aniztasuna bateragarriak dira. Martxa kolektiboa, berez, saiakera esperimental da, bilaketa esperimental. 080

2.2. Askatasuna eta elkartasuna

Lankidetza badago elkartasunez joka dezakegu, eta elkartasunez jokatzek badugu aurrera egin dezakegu nagusirik gabe, hau da, askatasunez eta justiziarekin, emantzipazio sozial eta ekonomikoarekin. 081

Ez dago komunitateaz hitz egiterik harremanak eta elkarbizitza indarrezko egoeretan oinarrituta baldin badaude. 082

Individualismo disolbatzaitetik kolektibismo umiliagarria pasatu gara. 083

Inoiz ez da hainbeste hitz egin askatasunaren gainean mende honen hasieratik gaur arte baino, eta askatasun ororen ukazioa diren sistema eta teoretan bukatu dugu; inoiz ez da hainbeste hitz egin gizakiaren balioaz azken garai hauetan baino, eta, halere, gizakia ez da orain baino gehiago gutxietsi eta baztertu, izan ere, gizakia oso erraz sakrifikatzen dugu, eta bere bizitza gauzarik zitalena balitz moduan gutxiesten da; inoiz ez da hainbeste hitz egin gizateriaz, guztion ongiaz, klasearen interesaz, gizateriaren ongiaz azken urteotan baino —zenbat zentzugabekeria justifikatzen den izen potolo horiekin— eta azkenean haxe da dugun egoera soziala, gizarte bat non handinahikeriak, harrokeriak, egoismoak eta indartsuen krudeltasunak inoiz izan ez duten lekua hartu baitute, masen, gizakien eta gizateriaren benetako interesen kalterako. Horretara heldu gara. 084

Askatasuna maite duenak gogoan izan behar du besteek ere desio dutela. 085

Gure herriak guztion ahalegina behar du. Indarrak batzea ezinezkoa da elkarrekiko errespeturik gabe, askatasunik gabe, eta, beraz, benetako pluralismo eta pluralismo eraginkorrik gabe garatu diren komunitateetan. 086

Esperientzia, gure herriaren espirtu demokratikoarekin koherente izanik, eta askatasuna modu eraginkorrean bilatzeko asmotan —sarritan eta modu askotan herritarrei eta herriari ukatu zaiena edo merkezurrean eman zaiena— askatasun eta ongizate hori bilatzen saiatu da, bai eta herritarrek eta langileek beraiek irabaz zezatela ere. 087

2.3. Askatasuna eta diziplina

Askatasuna ahularen zapalkuntza da, Lacordaire domingotarra zioen moduan: legea da txiroaren askatasuna. 088

Autoarekin autopistan sartu den auto gidaria edo hiri moderno baten barruan dagoena, zirkulazioko legeak betetzeaz eta inguruan dituen autoek markatzen dioten abiadurari eusteaz arduratu behar da nagusiki. Bere ongizatea eta bere askatasuna lege eta eskakizun horiei eskaintzen dien arreta mailaren arabera koak izango dira. Produkzioko kooperatiba bateko bazkideek ere jarduerarekin eta antolaketarekin lotutako lege eta eskakizunak bete behar dituzte tinko. 089

Askatasun hori bera lortze aldera, perfekzionismotik ihes egiten dugu eta akatsak eta hutsegiteak onartzen ditugu, agian jarrera zorrotzagoekin eta bortitzagoekin gainditu edo konpondu zitezkeen akatsak eta hutsegiteak. Baina, posible al da integrismoen eta totalitarismoen tentazioak beste modu batera gainditzea? 090

Gaur egun behar dugun pentsaera moralaren ezaugarri nagusietako bat tolerantzia omen da; bestea onartzea da, funtsean, bere helburua. 091

Gizaki bakoitzak gizaki kopuru bat darama bere baitan eta gizaki horiek denak iritzi desberdinekoak dira. Gizaki batean artista, jakintsu, filosofo, aita, langile bat egon daiteke... eta pertsonaia horietako bakoitzak gauzak ikusteko modu bat dauka, ondoan duenak duenaz bestelakoa. 092

Normalean, denok hainbat pertsonaiatxo dugu barruan itxaroten noiz esku hartu edo noiz errebantxa hartu. Denok dugu gutxi gorabehera diktadore bat ezkutatuta, denon aurrean

geure burua demokratizatzen dugun arren. Guztiok dugu egoista bat ezkutututa, besteengan jarrera berekoiak detektatzen tre-bea dena, ia halako jarrerarik ez dutenen artean ere. 093

Gure bizitza indibidualean apalagoa izatearekin konformatuko bagina eta bertute hori bera bizitza sozialera eramaten jakingo bagenu, konpromiso asko hautsi ahal izango genituzke, edo, gu-txienez, ez genuke hainbeste konpromiso hartu beharko. 094

Nork bere burua gaitortuta, nork bere burua zigortuta eta bauraldia erabilia premiak kentzea, hori da benetako askatasunerako bidea. 095

2.4. Demokrazia kooperatiboa

Elkarrizketa eta lankidetzak, askatasuna eta konpromisoa, metodo eragingarriak dira giza lana antolatzeko eta administrazio borondateak eta ahaleginak elkartu behar direnean eta, beraz, baita ekonomia humanizatzeko ere. 096

Demokrazia kooperatiboak dinamikoa izan behar du eta eragina eduki; bere kontribuziorik hoberena da balio berrien sustapena etengabea izan dadin gorantza egiten duen bultzada. 097

Gizakiak gastatu edo nekatu egiten dira: demokrazia berri-tzeko baliabide bat da. 098

Gure demokrazia, hainbeste maite duguna, diktadura bihurtzeko bai goian daudenek boterea gehiegikeriaz erabiltzeko bai behean daudenek dagokien botereari uko egiteagatik. 099

Nora goaz agindu behar dutenekin agintzen ez badakite edo erdipurdi agintzen badute, edo agindua bete behar dutenekin, zuhurtasunez egiten badute imajinaziozko zapalkuntzatik edo

2. Askatasuna

esplotaziotik ihes egiteko? Libre izatea ez da luxua, premia eta betebeharra baizik. 100

Demokraziak, behin zintzoki bereganatuta, diziplina, erantzukizuna, elkartasuna sendotzea ekartzen du berez. Hitz batean, benetako aurrerapen soziala dakar. 101

Demokraziak oreka puntua aurkitzeko balio behar du. 102



3.

Erantzukizuna

3.1. Erantzukizuna eta autogestioa

Autogestionatutako gizartea izango da guk denok gure pres-takuntzarekin eta gure parte hartzeko gogoarekin egiteko gai garena. 103

Esan izan da nagusia behar duen gizakia animalia dela; gizakia izatera heldu bezain laster premia hori desagertzen zaio. 104

Baina batzuetan, hainbeste esan eta esan gauzak konplexuak direla eta ez ditugula ulertzen, batek pentsatzen du horren atzean guri, langileoi, gustatzen ez zaigun mundu hau dagoen moduan utzi nahi dela. 105

Langileok argi ditugu ideiak. Ez zaizkigu gustatzen beren bu-rua bakarka lider eztabaidaekin aldarrikatzen duten pertso-nak edo presio talde interesatuek hala aldarrikatzen dituzte-nak. 106

Baten batek esanda, gizaki heldua da ilusioak galdu ondoren **ilusioari** eusten diona. Guk gehituko dugu oroimenak gorde-tzen dituen iraganaren eta ilusioen tokia izan daitekeen etor-kizunaren artean dagoena, hau da, orainean, *erantzukizunak* dauden tokian, dagoena. 107

Gure oroimenen lekua den iraganaren eta gure ilusioak egon ohi diren etorkizunaren artean, orainari aurre egin behar dio-gu, unean uneko egoerek ezartzen dizkiguten betebeharrak besarkatuta. 108

Ez gaitezen harro-harro ibili esanaz herri heldua eta aurrera-koia garela, bakoitza bere aldetik zentzuz eta indarrez jardun gabe. Noizbait pozik eta harro sentiarazi gaituzten gauzetatik, zenbat hartu ditugu benetan serio arduratzat? 109

Erantzule izateak, hain zuzen, esan nahi du agindu zaizkigun lanetan erabat ordezkazina izatea. 110

Inguruabarrak, esan dugunez, ez dira ez onak ez txarrak, baikoitzak nahi duena izango dira. Aukerak beraietaz baliatzea erabakitzen duenarentzat existitzen dira. 111

Arrazionalizazioa da gizakiak bere premiak asetzeko eta bere jomugetara heltzeko duen baliabide boteretsua. Aurreikuspenaz eta horren ondoriozko planifikazioaz, oraina eta etorkizuna konjugatzen ditu, bere premiak hierarkizatu eta bere indarrak modu egokian erabili. 112

Ez dago uztarik ereiten ez bada, eta ez da ezer produzitzen berez eta ezer egin gabe. Ez dago ondo beste batzuei eskatzea guk geuk ematen ez dakiguna emateko, guk geuk egiten ez dakiguna egiteko. 113

Esperientzia Kooperatibo honek agerian jarri du langileak heldu daudela proiektio sozial zabaleko eginkizunetarako. Eta agian, ezingo genuke gauza bera esan gure herrian batez besteko estandar kultural edo ekonomikotik gora duten sektoreei buruz. 114

3.2. Erantzukizuna eta elkartasuna

Norbanakoak edo familiak aberatsen antzera eta erakunde sozialak txiroen antzera. Horrek izen bat dauka: azpigarapen soziala. 115

Ikusten saiatzen gara bolo-bolo dabilen sozializazioa posible izango dela gure etxeko eskailera, bizilagun askorena dena, gure etxea zaintzen dugun moduan zaintzera prest gaudean, gure seme-alabak gutxien dutenen eskola eta ikastetxe-

3. Erantzukizuna

ra eramateko prest gaudenean; horretarako, saia gaitezen gu-
txien duten horiek ondo hornituta egon daitezen, benetako
aukera berdintasuna egon dadin, luxuzko bainugela batean
gasta genezakeen dirua herriko guztiei ura helarazteko siste-
ma bat ezartzeko inbertituta. 116

Ezin da babesgabe utzi premiaren bat duen inor, baina ezin
dira, ezta ere, berdin-berdin babestu arduraz eta kontuz ibilita
dabiltzanak eta nahitaez zaindu behar denari kasu egiten dio-
tenak. 117

Batek ezin du bestearen mahaian betiko eseri inoiz ezer eman
gabe. Bakoitzak gizarteari probetxu ateratzen dio, baina berak
ere gizarteari zerbait eman beharko dio, zerbitzuren bat egin
beharko dio. 118

Ondo joango gara gure lerroetan babesgaberik ez badago, bai-
ta kanpotik babes gehiegirik jasotzen ez badugu ere. 119

Ez dago ezertarako balio ez duen gizakirik; bai, berriz, gaiz-
ki erabilitakoak. 120

Ez dago ezer pertsona baten benetako nortasuna ikusteko gi-
zakiaren errespetuarekiko joera edo mendetasuna baino ho-
bea. 121

Isilune batzuk traizioak dira; beste batzuk, konplizitateak.
122

Ongiaren eta gaizkiaren aurrean, bidezkoaren eta bidegabe-
keriaren aurrean, ez da onartzen zalantzarik izatea. 123

Aurrean errebindikazioen bat eduki beharrak bultzatutako
pentsaerara ohituta dauden langile askorentzat tentazio erra-
za izan daiteke prozesu ekonomikoan zuzenean inplikatzeko


betebarra saihestea, garapen oro eta, are gehiago, garapen kooperatiboa ere saihestuta. 124

Kooperatibismo osasuntsu baten oinarrian erantzukizuna zentzu sakona duten pertsonak egon beharko dira, prozesu ekonomikoan zuzenean inplikaturik eta beraien komunitateko presio sozialaren menpe dauden pertsonak, alegia. 125

Orain arte herriari egin diogun ekarpena esperientzia kooperatibo hau izan bada, hemendik aurrera garapen komunitarioa eskaini beharko genioke, baina arduraz eta koherentziaz. 126

Kooperatiban guztiok gara guztiaren erantzule. 127

3. Erantzukizuna



40

Morala

4.1. Giza heldutasuna

Herri heldua izateko, koletibo infantila ez izateko, gure harremanak eta gure elkarbizitza arautzen dituen kontzientzia egoera oparotasuna eta prestigio hutsalaren beste zeinu batzuk baino gehiago baloratu behar dugu. 128

Norbanakoen formazio moralak gizartearen formazioaren oinarria izaten jarraitu behar du. 129

Gizartearen ongia ziurtatzeko modurik eraginkorrena da pertsonen perfekzioaren bila aritzea modu desinteresatuan. Zenbat eta hobeia izan artista orduan eta hobeia izango da sinfonia. 130

Gizon gogorrek eta ez jauntxo gazteak, beraien kontzientzietan lan mundu itxaropentsuaren deia sentitzen dutenak; askatasunaren eta justiziaren aldeko militanteak eta mundu berri baten edo eraikitzeke dagoen mundu baten aurrean axolagabe edo pasibo agertzen ez direnak. 131

Beraien bizitza balio espiritual eta moralei eskaintzen dieten gutxiak dira, beste inoren aurretik, gizateriaren handitasunaren eraikitzaileak. 132

Badago bertute bat eskuzabaltasuna deitzen dena, ezaugarri bat borondate ona deitzen dena, gure ekintzak arazorik zailenak konpontzeko nahikoak diren ala ez jakinarazten digutena. 133

Ez dago inoiz lan handirik pertsonen eskuzabaltasunik gabe, beraien apetitu egoisten sakrifiziorik gabe. 134

Gizartean bizitzeko garrantzitsua da nork bere burua menperatzen jakitea eta benetan menperatzea, hegoak txorientzat diren bezain garrantzitsuak, haiei esker hegan egin dezakete eta. 135

Egoistak eta indibidualistak kooperazioaren bosgarren zutabea dira. 136

Zer pena Pitagoras zintzoa gaur egun bizirik ez egotea! Seguru nago hipotenusaren karratua eta katetoak direla eta ez direla, bere alferrikako teoremaren orde zera egiaztatuko zuela: kontrako ekipoaren penalty arearen berbidura dela tokiko ekipoaren penalty areak eta ekipoaren *zaleek* batera okupatzen dituzten metro koadroen kopurua zale horien oihuen bolumenarekin biderkatuta ateratzen dena. Norbaitek zalantzarik baldin badauka, arbitroei galdetzeko. 137

Egiek eta legeek, matematikoak izan moralak izan edo sozialak izan, morrontza inplikatzeko dute, eta morrontza horrek onurak baino ez dakartzkie bere ondorio guztiekin onartzen dituztenei. 138

Arreta polarizatua, nortasunaren formazioa, norbere buruaren kontrola, prestakuntza teknikoa, indar morala, kontzientzia soziala arretaz zaindu behar dira gaur egun niaren oreka mantendu eta bizitzan galdutako eta bereizitako tanta baten antzera arrastatuta izatea nahi ez bada. 139

Nagusia egitearekin amets egin aurretik, gizakiak egitearekin pentsatu behar da. Harreman publikoak eta kortesia erakutsi aurretik, beren buruari kontu gutxiago egiten ohitu behar ditugu. 140

Ez norbanakoek ez herriek ezin dute oztopatu berak gainbehera egitea, ez eta bere jabego materiala mantendu ere lege moralik gabe. Kontzientziarik gabeko herriak beti krudeltasun zital batean erortzen dira, non senak irrazionalengan sortarazten duen ordena eta harmonia bera desagertzen diren. 141

4. Morala

Intuizioen kemenak eta ausardiak, ospetsuak badira ere, ez dute laguntzen gabeziak gainditzten eta ezintasunak konpon-tzen. 142

Irabazteko senaren mende dagoen gizakia produktu naturala da, eta, hori den heinean, naturaren legeen eta zoriaren men-pe utzitako garia, behia edo arbola izango litzatekeena izatera kondenatuta dago. 143

Elkarlanean eraldaketak eragiteko egiten diren ahaleginak gutxietsi egiten dira edo bakarrik beren emaitza ekonomi-koengatik baloratzen dira, eta oso gutxitan ahalegin horiek gizakiei eta gizarteari ematen dizkien heldutasunagatik eta trebakuntzagatik. Agian geu gara, kooperatibistok, buruak zein gainontzeko lankideak, esperientziak ematen duen gau-zarik baliotsuena eta erabakigarriena kotizatzen ez dakigun lehenak. 144

Gehiago edukitzeak sorgindu egiten gaitu eta gure bizitzari ba-lilio dezente kentzen dio *gehiago edukitzearen* eta ideia horren prestigio zantzuen inguruan polarizatuta. 145

Aurrera egitea ez da gehiago eskuratzea, gehiago izatea bai-zik. 146

Eragin eta ez irabazi, sortu eta ez eduki, aurrera egin eta ez menperatu. 147

Ona dena bultzatzen ez bada bukatu egiten da, naturaren an-tzera, landu ezean azkenean ez baita oso eskuzabala izango. 148

Giza balioak giza kontzientziarekin leial izanda baino ez dira lortzen. 149

Gaur egun ohituta gaude errua erakundeei egoztera, forma politiko eta sozialei egoztera, aldi berean soluzio guztiak erakunde berrietatik, forma politiko eta sozial berrietatik, etorriko zaizkigula uste dugularik. Horrekin ez dut esan nahi erakunde guztiak edo forma politiko edo sozial guztiak berdinak direnik, batzuk besteak bezain onak edo txarrak direnik, bigarren mailako gauzak direla baizik, ongiaren edo gaizkiaren iturria, iturri nagusia, gizakiengan dagoelako eta gizakiak ez dira aldatzen bakarrik kanpokoek emandako karguekin; gizakiek beren bihotzetatik eta beren kontzientziekin leial izanda baino ez dituzte duintasuna, zintzotasuna eta zorroztasuna eskuratzen. Eta ez dugu nahi horretaz hitz egin, ez dugu nahi horretan pentsatu. Herrien zoritxarrik handiena ez da hain zuzen forma politiko edo sozial jakin batzuk izatea, zentzu moralik ez egotea eta kontzientziak indarrrik ez izatea baizik. Herri batek zentzu morala eta kontzientzia galdu baditu, ezingo die bere gaitzei aurre egin eta bakarrik indarra gehiegi erabilia arindu ahal izango ditu gaitz horiek, aldi berean gizakia doilortuta eta basati bihurtuta. 150

Gizakiak bere mugak, bere mendekotasuna onartu behar ditu, gizonak balioen hierarkia onartu behar du, arrazoia senaren gainetik dagoela onartu behar du, natura osoa eta, naturaren zatia den heinean, gizakia bera ere lotzen dituen lege natural bat dagoela onartu behar du. 151

4.2. Kristautasuna

Ebanjelioan sinistea gizakiarengan sinistea da, bere bokazioan eta duintasunean sinistea, bere jaiolekuan eta bere kulturaren sinistea, edo bere diruan edo bere boterean sinistea baino gehiago. 152

4. Morala

Jesukristoren eskubideen aldarrikapena behartsuen eskubideen baieztapena da. 153

Egia handiak, handiak badira, eta hala direlako baino ez, denok ezagutzeko modukoak dira. 154

Kontzientzia arau konbentzional bat baino zerbait gehiago da: Gizateriaren eta Jaungoikoaren ahotsa da. 155

Egia esanda, gizona errukarria da, batez ere gizaki modernoak, zeinak ia ez daukan ez bizitza pertsonalik ez bizitza kontzientzerik. 156

Onak izateko betebeharra zoriontsuak izateko eskubidea baino premiazkoagoa da. 157

Gizakiak duen bikaintasunaren sentimendua hain indartsua eta bizia da non krimenik handienak bere mantuaz mozorrazten saiatzen baita. 158

Nor ausartuko litzateke igarotako urteetan gizateriaren, ordenaren, gizartearen, Errepublikaren edo Jaungoikoaren ize-nean egin den guztia justifikatzen? 159

Bidegabekeriak, mendekuak, gorrotoak, gosea... nola onartu ditzake horiek Jaungoikoak? 160

Gizakiek elkarrekin nola jokatu behar duten erakustea, hori bakarrik erakustea haien egoismoaren aurka egin gabe, itsaso goldatzea da. 161

Kristauei aurpegiratzen zaigu, eta ez arrazoirik gabe, doktrina bat dugula eta beste bat praktikatzen dugula. 162

Kristaua izatea ez da bakarrik egia izatea; egia praktikatzea da batez ere, edo, gauza bera dena, ongia egitea. 163

Kristaua izatea bakarrik egia izatea izango balitz, bakarrik egia besarkatzen duten kristauak nahikoak balira, orduan esan genezake gramofono disko bat ere izan daitekeela kristaua. 164

Ideia edo hitz ona ekintza bihurtzen dena da. 165

Gizakiaren benetako dimentsioa bere bihotza neurtuta ikusten da eta ez bere inteligentziaren zorrotasuna edo helmena kontuan hartuta. 166

Maitasuna justiziaren ezinbesteko osagarria da. 167

Karitateak justiziaren osagarria izan behar du. Horrela sentitu eta egiten ez duena gizakiak saldu ezin dituen sentimenduen trafikantetzat har dezakete. 168

Zorionekoa eliza adiskidetzat duena, elizak bere eskubideak zaindu eta bere duintasuna babestu ahal izango dizkiolako, horretarako baliabide bikainak izan ditzake eta. Eliza ondoan izanda, inork ezingo du herri hori sekula tiranizatu. 169

4. Morala



50

Hezkuntza

5.1. Kultura eta nortasuna

Gizakia hezkuntzagatik da gizakia, jaiotzez baino gehiago. 170

Bakarrik hezkuntzaren bidez hel daiteke gizakia gizakia izatera. 171

Gizakia gizaki jaio baino hezkuntzaren bidez egiten da gizaki. 172

Gizakiak gizaki jaio baino, hezkuntza prozesu baten ondorioz egiten gara gizaki, hezkuntza prozesua bere esanahi zabalean hartuta, hau da, ezagutza batzuen eta esperientzia baten ondorioz. 173

Gizakia hezkuntzaren bidez egiten da gizatiarra. Zibilizazioak azkar egiten du aurrera beti hezkuntzaren edo prestakuntzaren bidez, giza balioen eta balio sozialen bila. 174

Gizakiaren izaera ez da izaera hutsa artifizioa baizik, hau da, naturaltasuna eraldatuta, egokituta edo lanak eta teknikak garatuta. 175

Baso basatian lurraren indarra eta kemena alferrik galtzen dira fruta goxoak ematen dituen arbolak ernaltzen duen izerdiaren bitartez zein elorri zuriak edo sasitzak ernaltzen duenaren bitartez. 176

Hezkuntza ekonomia da, hezkuntzarik gabe ezin baita ondasun edo zerbitzu eskasik produzitu edo banatu. 177

Errazagoa da gazteak heztea gizakiak zuzentzea baino. 178

Irakaskuntzak iraunkorra izan behar du, eraginkor izango bada. 179

Erremintak eta makinak berrikusi behar dira, baina batez ere elementu horien nagusi izan behar duten gizakien pentsaera berritu behar da. 180

Kultura gizakiari zintzotasuna eta jatortasuna ematen dion odola da. 181

Baliorik galtzen ez duen ondare eta balore bakarra gizakien prestakuntza da: Formazioa. 182

Inteligentzia da Jaungoikoak gizaki guztiengan jarri duen berdintasunaren oinarri aldaezina. 183

5.2. Kultura eta emantzipazioa

Jakitea ahal izatea da. 184

Jakintza sozializatu egin behar da, boterea demokratizatze-ko. 185

Kulturaren sozializazioaren ondoren ondasunen sozializazioa dator ezinbestez, baita boterearena ere; esango genuke herri baten demokratizaziorako eta aurrerapen ekonomiko eta sozialerako aldez aurretik bete beharreko baldintza dela. 186

Ez dezagun ahaztu burgesiak aristokrazia gainditu eta aristokraziaren lekua hartu zuela kultura nagusiago bat eskuratu zuenean; beraz, langileria bere nagusitasun sozialari ekiteko baldintzetan egongo da gaitasun eta prestakuntza tekniko eta kulturalarengatik burgesiaren lekua hartu edo ordezkatzeko gai denean. 187

Gizakia hezkuntzaren bidez eraldatzea eta prestatzea saihestu ezin den aurrekontua da edozein koiunturatan eta egitura sozial guztietako kasu guztietan. 188

5. Hezkuntza

Kultura, zientzia, teknika dira berritzeko eragilerik aktiboena, eta eragile horiek izendatzaile komuna dute, pentsaera berria duen gizakia, alegia. 189

Hezkuntza, gizakiek hartzen dituzten ideia eta kontzeptuen konplexutasuntzat hartuta, herri baten garapenaren eta moldaeraren gakoa da. 190

Hezkuntza da ordena sozial, humano eta justu berri baten sustapenerako oinarri naturala eta ezinbestekoa. 191

Edozein tokitan egon daitezkeen garatu gabeko aldeez arduratu beharra daukagu, baina bereziki txapelek, kapelek eta antzekoek estaltzen dituztenez. Irekiera eta proiektzioa dira bizitzaren eta giza harremanen alderdi guztietan unean-unean agindu behar dutenak. Pentsaera aldaketa erradikala ezarriko da. 192

Jakintza boterea da eta boterea demokratizatzeko aldez aurretik jakintza sozializatu beharra dago. Ez dugu ezer egiten eskubideak aldarrikatuta gero eskubideak onartu dizkiegun gizakiak beren burua administratzeko gai ez badira, zerbait egin ahal izateko ezinbesteko diren gutxi batzuegana jotzea baino ez badute. 193

Klase baten edo herri baten emantzipazioa bere kideen prestakuntza masibotik hasi behar da. Ez dago masak hobetzerik masarik gabe. 194

Askotan esaten dugu bidegabekeria sozialen aurka, lansariduen esplotazioaren aurka, aberastasunen gehiegizko pilaketaren aurka, eta beste gauza batzuen aurka borroka egin behar dugula, baina ulertu al dugu morrontza nagusia eta esklabotasunik handiena eta larriena pobrezia intelektuala dela? 195

Pentsatu behar dugu aurretik izan den munduak utzi digun herentziarik tristeena ikasteko eta prestatzeko aukerarik ez izatea dela, eta ez desberdintasun ekonomikoak. 196

Gaur egun lan munduan ideia multzo garbi eta positiborik gabe sartzen den gaztea bere bizitza erlijiosoko naufragoa da edo kol-darra eta langileen mugimenduaren traidorea. 197

Gure ustez irudimen falta baino interes batzuen karga eta kultura prekario baten inertzia dira gu deseroso egotearen eta aukerarik ez izatearen benetako arrazoiak, lehena bote-retsua eta eragina dutenak esklerotizatzen dituztelako, eta bestea masak lozorroan mantentzen dituztelako. 198

Kultura, klase baten pribilegio gisa, herriek aurrera egiteko duten eragozpen handienetako bat da. Gizartearen eta ekonomia-aren aurkako morrontza dakar denbora berarekiko, eta arazo handirik gabe horretaz konturatzen diren gizakiak eta herriak sozializatzen saiatzen dira kosta ahala kosta. Kulturaren sozializazioa, herria diskriminaziorik gabe kulturara iristea, denoi hobera egiteko dituzten gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko aukera ematea, funtsezko postulatua da gure egungo mugimendu sozial ororentzat. Dagokion babes ekonomikorik gabe eta aldi berean kulturaren babes gabe egiten diren giza eskubideen aldarrikapenak amore emate laburrak dira, jendeari begira egindakoak eta ondorio handiagorik sortuko ez dituztenak. 199

Ezagutzen dugu jende apalaren, proletarioen askatasun gogo, hitz batean, herriaren askatasun gogo. Gogo hori ondo dago eta asko esaten digu horien guztien alde, duintasun sentimenduaren alde, eta, denok dakigunez, askatasuna ezinbestekoa da sentimendu horretara heltzeko. Zer pena ematen du jakiteak gogo hori ezin dela bete ezta kasurik hoberenean ere, gogo ho-

5. Hezkuntza

riek dituztenak beraiek ere ez dira-eta beraien interesak eta eskubideak administratzeko gai, ezagutzarik ez dutelako eta, horrenbestez, horretarako beharrezkoak diren prestakuntzarik eta tekninarik ere ez dutelako. Askatasuna maite duen herriak, bere eskubideen jakitun den herriak, jakin behar du askatasuna edukitzeko alde z aurretik bere burua administratzen jakin behar duela, eta adinez txikia izateari utzi behar diola. Horren moduko herri bat bere prestakuntzaz arduratu behar da, alfabetatuta egon gabe eta jakinduriarik eduki gabe morrontza baino ez baitu aurkituko, beste modu batean bada ere. 200

Irakaskuntza ezinbesteko elementua da langilearen benetako emantzipaziorako. 201

Bere duintasunaz ohartzen den edo besteen menpe egon nahi ez duen gizakiak edo herriak bere inteligentziaren eta bere borondatearen lanketa eta garapena bultzatu behar du, ezer baino lehen. 202

Gure gizakien talentua aprobeztatzea, haien egoera ekonomiko pertsonala edo familiarra alde batera utzita, ezinbesteko premisa da ordena sozial gizatiarrago eta kristauago bat eratzerara bideratutako edozein ekintza sozialetarako. 203

Beharrezkoa da aberastasuna berriz banatzea, baina are beharrezkoagoa da kulturaren sozializazioa, lanaren benetako humanizazioan pentsatu ahal izateko. 204

Ergela gaizkilea baino zoritzarrekoagoa da, gaiztoak atsedena batzuetan hartzen duelako eta ergelak, berriz, inoiz ez. 205

Gure buruak gutxi garatuta dauden eta arreta gehiago eskaini behar diegun aldeak dira. 206

Aurreikuspenik emankorrena eta errentagarriena da gizakiak egiteko erabil dezakeguna, gizaki horien gainean eraiki eta altxatu baitaitezke herri osasuntsuak. 207

Komunitate batek dinamikoa izateko, mota guztietako ekimenak izateko daukan modurik hoberena goi ahalmenak lantzeko moduan dauden guztiei aukera zabalak ematea da. 208

Hezkuntza da gure gazteen eta gure gizartearen beraren zortearen eta etorkizunaren gakoa. 209

Ez dezagun amets egin etorkizun hobe batekin, aurretik etorkizun hori prestatzeaz arduratzen ez bagara. Hain zuzen ere, horretarako biharko gizakiak izango direnen arima gazteak modelatu beharra dago aurretik. 210

Seme-alabak gure poza eta gure hondamena dira, eta bata edo bestea izango dira gure heziketa lanaren arabera. 211

Etorkizunean izango dugun zortea pasa garen ikasgelen araberakoa izango da, jaio garen sehasken araberakoa baino gehiago. 212

Landareei asko kostatzen zaie erroak lur sakonean botatzen: gauza bera gertatzen zaie sentimenduei eta ideiei gizakien eta herrien espirituan errotzeko, eta hauei, gainera, gehiago kostatzen zaie, landareen bizitza bost urtekotan edo mendetan neurtzen delako eta gizakiena eta herriena, berriz, milurtekotan, gehienetan. 213

Gizaki baten prestakuntza bera agertu baino ehun urte lehenago hasten da. 214

Herri baten konstituzioa, edo gobernatzeko modua edo erregimena gauetik goizera alda daiteke. Legeekin ere gauza bera. Gobernu baten ardura beste batzuen esku jartzea nahiko erra-

za da. Ez da denborarik behar. Baina inork ez du zalantzan jarriko piztia bat gizaki bihurtzeko, nork bere burua pixka bat hobetzeko, batzuegan eta besteengan jaiotzen diren joera txarrak kontrolatu eta menperatzeko denbora behar dela eta lana egin behar dela, ezin daitekeela inprobisatu. 215

Irakaskuntza eta hezkuntza dira herri baten lehen zeregina. 216

5.3. Hezkuntza eta kooperatibismoa

Hezkuntza eta lankidetzak elkarrekin lotuta daude, gutxi gorabehera lanaren eta gizakiaren antzera, bakarka eta taldeka autogauzatzen direnak naturaren inertzia eta jatorriz eta baikoitzak duen garrantzia gaindituta. 217

Esan izan da kooperatibismoa hezkuntzaz baliatzen den mugimendu ekonomiko bat dela, eta posible da definizio hori aldatzea esanda jarduera ekonomikoaz baliatu zen heziketa mugimendu bat dela. 218

Hezkuntzak, prozesu didaktikoa eta existentziala den heinean, kontzientzia hartzea eta laneko praktika sartu behar ditu tartean. 219

Lanak eta ikasketek eskutik helduta joan behar dute. Ez dira inoiz ahaztuta utzi behar lanean ari direnen ahalmenak ez eta gutxietsi ere ikasketetan ez atzera ez aurrera gelditzen direnek edo ikasteaz nekatzen direnek lanerako dituzten aukerak.

Aukera berdintasunak bizitzan zehar aplikatzen jarraitu behar dira, benetan gure komunitateak arinak izatea nahi badugu. 220

Demokrazia ez da ondo elkartzen oinordetzan jasotako pribilegioekin. 221

Hezkuntzarako aukeren printzipioaren ezaugarri bikainak printzipio hori gauzatzeko behar diren zamak berdintasunez banatzeko eskakizunekin elkartu behar dira. 222

Lana eta **kultura** elkar ditzagun, komunitate progresibo baten zerbitzura jar ditzagun, gizakiaren onurako izan daitezzen. 223

Enpresa kooperatiboek gelditasunetik ihes egin behar dute eta etengabe bere gizakiak prest jarri behar dituzte, haien gaitasunak arretaz kontuan hartuta, sistematikoki eguneratuta edo egokituta. 224

Finantza planak nola gauzatzen diren bezain beste zaindu behar da sustapen bitartekoen aplikazioa, giza ahalmena baldintza hoberenetan aplikatuta egon dadin.

Hezkuntza eta formazioa aurrerakin eta itzulkinen saldoak baino askoz errentagarriagoak dira. 225

Formazioa giza bertute guztiak lantzearen parekoa da, bereziki azpimarratuta pentsatzeko gaitasunaren lanketa. 226

Ideiak eta horien ondoriozko pentsaera kooperatibetako instalazio eta makinak bezain garrantzitsuak dira kooperatiba ondo joan dadin. 227

5. Hezkuntza



6.

Bizitasunaren ezaugarria

6.1. «Beti dago pauso bat gehiago egiteko»

Beti dago egin beharreko beste urratsen bat. 228

Bizitasunaren ezaugarria ez da irautea, berriz jaiotzea eta egokitzea baizik. 229

Garapena da gure helburu nagusia, azken finean gizakia itxaropenari esker bizi da. 230

Arrangurarik ez, ekintzak bai. 231

Etorkizuna gizakien eta herrien esku dago, une oro eta belau-naldi bakoitzean hobera egin baitaitezke besteen errentetatik bizitzeari uko eginda norberak dituen bertuteak eta gaitasunak oinarri hartuta. 232

Indarrik gabe edo zaharkituta gelditu den burgesia baten zenbat ohitura ari gara berriro bizitzen pentsatuta aurrerakoiak garela eta horregatik harro egonda, benetan kontserbadore eta tradizionalistarik txarrenak izanik? 233

Aurrera egiten ez duena bizitzak aurretik eramango du. 234

Mundua ez zaigu eman kontenplatzeko, eraldatzeko baizik. 235

Bizitzea borrokatzea da, nahi ala nahi ez. Izan ere, jakiteko borroka egin behar da, ahal izateko borroka egin behar da, maitatzeko borroka egin behar da, eta ahalmenak garatzeko, zerbait izateko, borroka egin behar da. 236

Gizakia da lurrean bere neurrira eta bere gustukoa den zerbait aurkitu ez duen izakia. Halere, dena eskuratzeko ahalmenak ere baditu, dena bere arrazoiazen menpe jarri eta bere premien arabera antolatzeke gai ere bada. Horregatik ez dauka

zertan bere zorteagatik kexu egon. Nahi badu burujabea izan daiteke eta berari ondo datorkion eta bere gustukoa den ordena sor dezake. 237

Gauzatzen ez den doktrina, ekintza bihurtzen ez diren sinismenak, taupadarik ez duen bizitza edo bibratzen ez duen mugimendua bezain arraroa da. Ez gaude munduan begira egoteko edo kexatzeko, eraldatzeko baizik. 238

Normalean, garapenerako trabarik handienak espirituaren domeinuetan egoten dira. 239

Barkatzen zailena da hobetzeko gogorik ez izatea. 240

Hobe da huts egitea ezer ez egitea baino, Gainera, huts eginda azkenean asmatzen ikasten da. 241

Naturak ederki erantzuten die gizakiaren eskakizunei, gizakiak naturari aurre egiten eta bere lanarekin eraldatu eta emankor bihurtzen dakienean; unibertso materiala gai moldakorra da, hez daiteke eta gizakiarentzat balio du, agorrezi-na da, gaia milioika argi urteren bitartez zabaltzen delako eta gramo bakoitzak milioika elektroi-volt dauzkalako. 242

Kooperatibismoak jomuga duen ordena ez da estatikoa, etengabe aldatzen ari den eta forma hobea izateko joera duen ordena da, oreka da mugimenduan. Ekintza bizigabe bat kontraesana da eta kooperatibismoa, teoriatik baino gehiago ekintzatik eta esperientziaz jaio dena, sortu eta nahi behar dugu adierazpen moduak etengabe bilatuta. 243

Beharrezkoa da hobetzea, ezinbestekoa da erakundean bertan zein etorkizunari begirako proiektzioan eta konpromisotan hainbeste gustatzen ez zaizkigunak eraldatzeko borroka egitea. 244

Gure posizioak etengabe eta poliki-poliki berrikusi behar ditugu, eta ezin dugu nekea ezagutu, espiritu berri baten aglutinaziorako eta barneraketarako prozesuari utsita. 245

Hobetzeko gogoia ez duen gizaki edo komunitate bat ez da produktioko kooperatibarik eraikitzeko prestatuta dagoen soro bat. 246

6.2. Kooperatibismoa esperientzia bat da

Ezin dugu Kooperatibismoa bizi garai batean onartutakoa eta ezarritakoa aldaezina izango balitz moduan; onartu behar dugu esperientziarako prozesu bat dela eta bertan bitartekoak eguneratzen laguntzen duten aldaketak egin ahal direla eta egin behar direla, lortu nahi diren goi mailako helburuen zintzotasuna eta kategoria ukitu gabe. Gure bilakaera pertsonala bera eta horren ondorioz gure harremanetan eta elkarbizitzan eta gure zintzotasun, seriotasun, erantzukizun edo ekimen mailan gertatzen dena, esperientziari berari eta antolaketa moduei esker sendotu direnak, antolaketarekin lotutako guztiari berriz ikustera eraman gaitzaketen beste faktore berri batzuk dira lortu nahi diren giza helburuei hobeto zerbitzatzeko. 247

Pozik sentitzea onartu ezin den luxua da; giza kontzientziak eta kontzientzia sozialak duintasunez bizi nahi dutenei onartu ezin dieten jarrera da. Aukera batzuez gozatzen dutenek beraien eta besteen etengabeko garapenerako prozesu bat bultzatu eta artikulatzera bideratutako ekarpenetan pentsatu behar dute. 248

Hau da, taldea edo komunitatea jabe bihurtzea eta elkartasunaren erregimena ez dira berez nahiko nahigabearekin eta oinazearekin bukatzeko. Horiek hor diraute eta iraungo dute gi-

zakia bere burua gauzatzeko modu berriekin, lortu beharreko etapa berriekin identifikatzen den heinean. Baliteke zenbait unetan kooperatibaren konponbideak denetarako balio zuela uste zutenek (batez ere, batek imajinatzen duena) kasu horiek zein irrealak diren gogoan hartzea alferrikako atsekabeak ekidin nahian. 249

Ez dugu barkamena eskatuko gudan ikus dezaketen mugapengatik. Abian gaude. Gure akatsez ohartarazi eta onartu ditugun printzipio batzuekiko leial ez garela aurpegiratzen badigute ere, eskerrak ematen dizkiegu. Ahul edo indarrrik gabe ikusten gaituzte, baina lanaren kausarekiko eta justizia sozialarekiko leial garela, horregatik laguntzeko eskatzen diegu. 250

Harriaren Aroa, alderdi materialean oso atzean gelditu baita, beti dago presente gure espirituaren eta pentsaera sozialaren domeinuetan. 251

Harrigarria da pentsatzea garaipenaren hoberena borroka dela. 252

Gizaki onek tresna txarrekin gauzak ondo egitea, arraro samar, eta negargarriena eta txarrena komunitatearentzat ez da gizaki txarrek tresna onekin gauzak gaizki egitea, gizaki onak tresna txarrekin gauza gaizki egitera behartuta daudela baidir. Tresna horiek erakundeak eta erakunde horiek osatzen dituzten egiturak baino ez dira. 253

Garapenaren gakoia, baita elkarbizitzarena eta gure herriaren jarduerarena ere, bere biztanleria eta hura animatu duen gogoia izan dira. 254

Konfiantza izan gure gizakien bertuteetan eta gure herriek hobera egiteko gogoan, naturaren borroka gogorrarekin eta bere arimara heldu diren beste eragozpenekin eraiki baitira. Onera

6. Bizitasunaren ezaugarria

etorri behar dugu, baina ez hori bakarrik, aurrera egin behar dugu menperatu gabe eta horretarako gaur, Lankide Aurrezkiaren eskutik, sortzen eta eragiten saiatu beharko dugu. 255

Gure lurreko gizakien eta herrien kontzientzia aktiboaren giza balioen eta balio sozialen inspirazioari erantzunda bizitzeko prozesua, prozesu hedakorra, izan nahi duen **esperientzia** batek, kontzientzia publiko horren informazioa ematen duten datuak barneratu behar ditu. Eraldaketa bat geroratze-ko espediente bat baino gehiago, eraldaketa hori aurreratu eta bizkortuko duen mekanismo bat izan behar da. 256

Bizitasunaren ezaugarria, azken finean, irautea baino gehiago birjaiotzea bada, kooperatibista handi batek oso ondo esan zuen moduan, kooperatibismoa paternalismoaren antipodaz aparte konformismoaren eta kontserbadurismoaren antipoda ere bada eta inolako dogmatismorekin lotuta ez badago, berrikuntza sozialean abangoardian egotea nagusituko da, are gehiago berrikuntza horiek duintasun eta askatasunaren kontzientzia batek, justizia eta elkartasunaren kontzientzia batek eskatuta badira. Sentimendu horiek partekatzen dutenak indartsuak dira egun. Beren indarra itzela da, gogo zintzoak animatzen dituen zerbait direlako, eta uste dugu zentzudunak, ideia garrantzitsuen aurrean sentikorrek direnak gehiago direla. 257

Berritu edo hil. Bizitasunaren ikurra ez da irautea, aldatzea baizik eta etorkizuna kontuan hartzen ahalegintzea. Ikerketa aurrekontu arrunta da horretarako. 258

Arazo komunak gaingitu eta aktiboki konpontzen lagundu nahi izatea da herri baten benetako bizitasunaren sintomarik hoberena. 259

Ikertzea da etsi eta atzera egingo ez duten gizarteen eta komunitateen oinarriarik unibertsalena eta egokiena. Gaur egun, edo aurrerago, ikertzea ez da ez apeta bat ez luxu bat, funtsezko premia baizik; besteen kontura bizitzea espero ez dutenek aurre egin beharko diotena edo landu beharko dutena. 260

Bizitzea ibiltzea da, ibiltzea atzera egiteko aukerarik gabe. Bizitzaren etapa bakoitzean gizakiak zailtasun eta arazo berriak aurkitzen ditu, eta ezin ditu saihestu atzera eginda, gainditu behar ditu; bestela haien menpe eroriko da eta. Hori da, hain zuzen, gizateriaren martxa arautzen duen lege historikoa. 261

Bide onean goaz eta ez daukagu asmorik inolako helmugan gelditzeko askatasunak eta justiziak gure laguntzaren premia duten bitartean. 262





II.
Lana
eta Enpresa
kooperatiboa



U
L
G
O
R
S.C.A.

Lo

Lana

FAGOR

confort del hogar

1.1. Lanaren duintasuna

Lana, oroz gainera, komunitateari egiten zaion zerbitzu bat eta pertsona garatzeko modu bat da. 263

Lana ez da Jainkoaren zigor bat, baizik eta Jainkoak, gizakia bere kolaboratzailetzat hartuta, gizakiari berari ematen dion konfiantzaren froga bat. 264

Tamalez, jatorrizko bekatuaren zoritzarreko ondorioak behin eta berriz azpimarratu dira, arrazoiketaren aztarna oro itotzeraino azpimarratu ere. Gizakiak, tradizioaren forzepsak hartara behartuta, ez zuen berandura arte deskubritu bere ahalmenaren intimitatea eta, are inportanteagoa dena, ez zuen berandura arte bere duintasuna balioetsi, Jainkoaren kolaboratzaile gisa naturak amaitu gabeko obra osatzeko zereginan. 265

Bestela esanda: Jainkoak bere enpresako kide egiten du gizakia, krezioa den enpresa harrigarri horretako kide. Gizakiak, bere jardunaren bidez, gauzak eraldatu eta multiplikatuz egiten ditu. 266

Guri dagokigunez, lana ez da inoiz zigorra izango, aisia ez da inoiz zerutik datorren bedeinkapena izango, eta, beraz, aberastasuna ez da giza paradisura iristeko bidea izango. Guri dagokigunez, lana da Jainkoaren plan eta nahiei gizakiak egiten dien ekarpena mundua eraldatuz eta hobetuz joateko, mundu hori, paradisu lurterra izatera iritsiko ez bada ere, gaur egun dena baino erosoagoa izateko xedez. 267

Egoki da Zentroa izateagatik ezaguna den Arrasateko Artazu-biaga leinu etxean harriari zizelatuak testua hona ekartzea. Badago han armari bat non piztutako zuzi bat ikusten den esku batek eutsita, «pro libertate combusta» testua inguruan

duela. Bada ate nagusiaren buruan idazkun hau dago: «Solus labor parit virtutem et virtus parit honorem». Latinean oso jantzita ez gaudenok eta iruzkin hau lehenbailehen bukatu nahi dugunok, honelaxe itzuliko dugu: «Ahaleginik ez dagoen lekuan ez dago bertuterik, ez eta ere ohorerik bertute barik»; hau da, ateoak ez daude nagierendako eta alperrendako eginak, izan ere, badago beste bat ere, idazkun honekin: «Ate honetatik egintzak baino ez dira sartzen». 268

Garapen ekonomikoak giza aurrerapena irudikatzen du eta benetako betekizun moralak da. Fededun baten begietan, azpienplegu bat, edozelakoa izanda ere, eskandaluzko zerbait da. 269

Gure herria jakitun da daukan ongizatea eta indarra herri horren seme-alaben lan ahalmenetik etorri direla. Lan erreserba eta kontingente horiek izan dira gure nortasun historikoa sustatu duten eta munduan ezagutarazi gaituzten armadak. 270

Lana da giza espeziearen adierazpide bereizgarria. Lana, beraz, naturaren gaineko ekintza adimenduntzat jotzen da, natura bera onura bilakatzen duena. 271

Gizakiak, lanaren bitartez, eraldatu eta emankor bihurtzen du natura, eta lana da komunitatearen ondarrerik onena. 272

Lan egitea oso meritu handikoa izanda ere, lan hori gero gehiegikeria edo ke bihurtzen bada, ezin esan daiteke hori egin duenak lana merezi bezala tratatu duenik. 273

Duintasunez bizitzeko, lana besarkatu beharra dago. 274

Norberaren baliabideak edo datu pertsonalak baliatzeko beharrak eta aukerak gizaki gehiago eraman du garaipenera kapulta paternalistek baino. Sarritan, bigarren mailakoek askoz ere distira handiagoa egin dute aita-amen aberastasunen lehen oinordekoek baino. 275

Lana da natura eraldatu, emankor bihurtu eta, ondorioz, giza ongizatea sustatzeko zereginean gizakiari Jainkoaren lankide izatearen ohore gorena ematen dion ezaugarria. Gizakiak bere hurkoekin batera lankidetza noblean eta elkartasunean lan egiteko gaitasuna gauzatzeak, noblezia ez ezik, emankortasun optimoa ere ematen du lurreko txoko bakoitza denontzako bizileku atsegin eta etorkizun handiko bihurtzeko. Lan komunitateak horretara jarrita daude eta gure herriek aurrera egitea dute xede. 276

Lana da nork bere burua gauzatzeko, elkartasunerako, norbera hobetzeko eta hobekuntza kolektiborako bidea; zalantzan jartzeko zailagoa den kontzientzia gizatiar eta sozial baten adierazgarria da. 277

Herriak ez dira loteria bidez aberastean. 278

1.2. Lana humanizatu

Etorkizuna lan egiten eta lana goratzen dakitenentzat da. 279

Ez al da ba lana kapitala baino elementu nobleago, zaharrago eta gizatiarragoa, eta, honenbestez, ez al du estimu handiagoa merezi? Ezin justifikatuzko anbizioa ote da haren ordezkariak gidaritzaren nagusitasuna nahi izatea? 280

Justizia nori berea emateko agintzen duen bertutea da... eta kooperatibismoak lanari lanarena dena ematen dio eta kapitalari kapitalarena dena. 281

Naturak gehien mimatzen dituen gizakiak eta herriak ez dira, hain juxtu ere, historian distirarik handiena egiten dutenak. 282

Ongizatea gozaten jarraitzeko, eta libre izateko, hobeto lan egiteko prest egon behar dugu, giza eta gizarte baldintza ho-beagoetan, eta kalitatea eta egokitasuna direla-eta munduan desiragarriagoak izango diren produktu eta gaindikinekin, hartzaile guztien mesedetan. 283

Ondo lan egitea gauza bat ondo eta modu onean egitea da. Ez da tautologia. Ondo egindako gauza bat, hau da, baliagarria, behar bati erantzungo diona, zeinaren kostua prezioa baino txikiagoa izango baita, eta prezioa bidezkoa eta onartua izan- go baita. Modu onean egindako gauza bat, teknikarekin, an- tolamenduarekin, ahalegin boluntarioak elkartuta eta batu- ta, eta betiere lan egiten duen gizakia errespetatuz, zeren eta helburuak ez baititu bitartekoak guztiz justifikatzen eta gi- zakia, maila altukoa nahiz baxukoa izan, beti baita garrantzi- tsuena. 284

Karitatea hauxe da: ondo lan egitea. 285

Gizadiak hobeto bizitzeko duen bitartekorik onena gehiago eta hobeto produzitzea da, hau da, oinarritzko bi faktore hauek handitzea: produktibitatea eta kalitatea. 286

Nire ustean, helburu soziala da, eta denoi dagokigun ardura, pareko ahalegina egitea emakumeei gizonezkoei bezala lan- postuak eskaintzeko. Ez dirudi oso zuzena denik denon esku- bide eta betebeharrak den hori definizioz ukatzeko, hots: lan egi- tea, eta ahalik eta errendimendu handienez lan egitea. 287

Lanaren balioak ez du sexuarekin zerikusirik. 288

Heldutasunaren ezaugarria da eginkizun kolektiboan parte hartzea eta integratzea. 289

Langile batek ez badu topatzen egiten duen lanean bere sentiberatasunak eta gaitasun naturalak eskatzen dioten atsegina, norbanako horrek atsegina eza ereingo du ezinbestez. 290

Gaur egun, gure arazoa ez da lana saihesteko egoeran jartzea, baizik eta lana zerbitzu eta, ahal dela, atsegina onesten iturri bilakatzea. Lana humanizatu egin daiteke eta humanizatu egin behar da. 291



20

Batasuna

2.1. Giza oinarria

Hasteko, gizaki guztiak pareko duintasuna eta zoria duten herritartzat jo behar ditugu. 292

Norberaren zoria besteenarekin loturik dago. 293

Landareak eta gizakiak hobeto defendatzen dira basoetan landatuta eta babestuta daudenean. 294

Gizakiek eta herriek, loreek eta bestelako izaki batzuek bezala, bakarrik ez baina denak batera ibilita bizirauten eta irabazten dute. 295

Gizakiak kreazioaren errege gisa gauzatzen du bere burua bere eraikuntza propioak bere baitan iraunkor den horren mende jartzen dituen neurrian. Nork bere burua gauzatzea da hurkoengana jotzea eta haiengan babestea. 296

Esan ohi denez, ez dago kosmosean eraginik edo elkarrekikotasunik lortzen ez duen indar edo botere adierazpenik, ezta oihartzunik gabe itotzen den oihurik ere. Salbuespen bakarra, inoren minarekiko hotz geratzen den bihotza da. Munstroke-ria hori ez da giza kategoriara ere iristen, are gutxiago kristau kategoriara. 297

Denok gara uste duguna baino zordunago besteei. 298

Ezin dugu gure burua sozialtzat eta justutzat eduki eta den-denok komunitatetik eta aurreko belaunaldietatik jaso duguna ahaztu, horren ordainetan dagozkigun ekarpenak egin barik. 299

Gaur egun, norbanakoa, pertsona, hain da ezdeusa, ezen bere nortasunari eusteko elkartean murgildu eta, neurri batean, bat egin behar baitu, zeren eta, bere nortasunari eutsi nahi

dion tantari gertatzen zaion legez, ozeanoan galdu beharra baitauka, bestela atmosferan lurrundurik desagertuko da eta. Norbanakoak eta pertsonak besteen parte hartzea eta laguntza behar dute. 300

Gizakiak, bere eskarmentu pertsonalarekin batera —zeina familia ingurunean modelatu baita—, integrazio prozesu etengabe batean eratzen du bere nortasuna, inguruneak aurkezten dizkion kontzeptuak edo egoerak onartuz edo baztertuz. 301

Zalantza barik, kolektibitate baten ezaugarriarik itxaropentsuena interesatzen dena eraikitzeke eta etorkizunera begira jartzeko bat egiten jakitea da. 302

Gizakiari komunitatearen bidez erreparatzea esaten dugunean, hurkoen onginahiaren eta laguntzaren babesa edukitzea esaten ari gara. 303

Hona hemen garaile izan nahi duen gizakiaren formula: ez borrokatu bakarka. 304

Elkartasunean fedea izatea horixe da: geuregan bezalaxe besteengan sinestea eta geuretzako hartzen dugun neurria besteentzako izatea. 305

Zuzen jokatzeko elkartzen gara eta Elkartasun-bidez goaz Askatasun-alde. 306

2.2. Oinarri ekonomikoa

Ez gara inoiz lerrokatu eta ez dugu lerrokatzera etsiko existentziarekin talka egiten duten ideien izenean. Banatu egiten gaituzten ideien eta batzera edo elkarrekin bizitzera garamatzan existentziaren artean, bigarrenaren alde egingo dugu eta

horregatik arbuiatzen dugu utopia huts den horrenbeste ideologia. 307

Izan ere, gaur egun lan munduak eskatzen al du batasuna baino garrantzitsuagoa den zerbait? Eta, ba al dago berez unibertsalak diren balioetan gure burua identifikatzen ahalegintzea baino batasun molde hoberik? 308

Mundu zabalean euskotarron ezaupiderik entzutetsuena askatasun mina da; orain zuzentasun zaletasunez guritu dagigun eta Lanak eta Elkartasunak ekarriko digute geure herrien aurrerapena. 309

Sistema ekonomikoak gero eta antz handiagoa dauka erloju batekin. Pieza bat ondo ez badabil, erlojuak gelditzera jotzen du. 310

Egia esanda, denok gara solidarioak; horretarako ez da beharrezkoa enpresa kooperatibo bereko kide izatea. Gero eta gehiago, lanaren banaketa gorakor batean oinarrituz egituratzen da ekonomia; dena egiten da denon artean. Nekazaritza sektorea, industria sektorea, zerbitzu sektorea, denak ere komunitate bereko kideak dira, prozesu ekonomiko bereko kideak. Beraz, kontua da oinarritzko elkartasun horren kontzientzia hartzea, sentibera izatea eta elkartasun horren askotariko alderdiak kontuan hartzea. 311

Enpresa bateko langileek enpresan daukaten ordezkaritza eta jardunaren arabera, sendotu egingo dute enpresa barruan lan faktore gisa daukaten posizioa. Lan komunitateak entitate juridikoa izan behar du. 312

Gaur egungo desberdintasun ekonomikoek, kultura eta hezkuntza aukerei lotutako pribilegioen eta eskusibismoaren eraginez, kasta itxiek eta klase antagonikoek bizirik iraute-

ra kondentzen dute gizadia, elkartasun eta anaitasunerako itxaropenik gabe. 313

Anaitasuna eta elkartasuna, berdintasuna dagoen tokian nagusitzen dira; halako oinarriak ez bada, sentimendu horiek iraupen gutxiak izaten dira. 314

Nork bere morrontzak gainditzeko, oinarri sozial zabaleko egitura komunitarioak sendotu behar dira. 315

Lagun diezaiozun elkarri eta egon gaitezen ziur guri ere lagunduko digutela, eta denon artean aurrera egingo dugu. 316

Langileak, isolatuta hartuta, ahulak dira egiazki, baina elkartuta lehen mailako potentzia osatzen dute. Ahalegin berri bat egitera deitu behar zaie langileei, egitura ekonomiko egokien oinarri irmoaren gainean emantzipazio soziala finkatzeko. 317

Tamaina mundialeko suizidio eta hilketa baten bekatuak kutsaturik bizi gara. 318

2.3. Elkartasuna

Nire aburuz, giltzarria da eta, nahi baduzue, sekretu atomikoa, bizitza soziala irauliko duena. Klase arteko kolaborazioa, herriaren eta agintarien arteko eta agintarien eta herriaren arteko kolaborazioa eta, teorikaren eta espirituaren kolaborazioa; horixe da benetako bizitza sozialaren sekretua eta bake sozialaren giltzarria. Ez da nahikoa nagusiek ekintza onak egitearekin, ekintza horietan langileek parte hartu behar dute; ez da nahikoa langileek erreforma handiez amets egitearekin, nagusiek erreforma horietan esku hartu behar dute; ez da nahikoa agintariak eginahalak egitearekin, herriak agintariokin elkartu behar du. Agintariak herritarrengandik bereizita dauden lekuan ezinezkoa da bizitza sozial espontaneorik

2. Batasuna

sortzea; nagusiek hartzen duten bidean langileak sartzen ez badira, bakea itxurazkoa baino ez da izango eta edozein unetan engainua ustekabe eta harridura bihurtuko da. Gauza guztietan kolaboratu beharra dago, dena denon ahaleginaren eta sakrifizioaren fruitu izan dadin eta loria ere denona izan dadin. 319

Arrakasta lortzen duten herriak prestuen agertzen diren eta beren ekintza prozesuak bizkortzen dakiten herriak dira; eraikitzeko batzen direnak. 320

Osa dezagun bere komunitate izaeraz uste sendoa duen komunitate bat eta sekulako indarra izango dugu. Kolabora dezagun denekin bereizkeriarik egin gabe, borondateko gizakiekin bertiere. 321

Batasuna da ahulen indarra. Elkartasuna da gure indarrak multiplikatzen dituen palanka ahaltsua. 322

Momentuz, gure herriak gehien behar duena bertako gizakien arteko batasunetik eta bertako bizilagunen Lanetik eratorritako indarra da. Hori guztia arrazoiaren indarra sustatu eta babestuz batu daiteke; eta horrek ez du esan nahi indarraren arrazoiari uko egin behar zaionik. Hala, egia eta justizia denon askatasunaren eta ongizatearen zerbitzura egotea lortuko dugu. 323

Gizaki praktiko eta kontsekuenteak izateko, justizia eta ongia nagusitzearen alde lan egingo dugu, eta horretarako ez zaigu axola izango ahalegin horretan zein datorren gurekin bat. 324

Solidarioa izatea hurkoa onartzea da, baina ez bakarrik hurkoa den bezala onartzea, baita izan beharko lukeen bezala ere; haren mugak eta akatsak onartu eta hurkoa ondo hartzea, gure

zerbitzuaren bidez muga eta akats horiek gainditzen laguntzeko bulkadari uko egin barik. Askatasuna eta elkartasuna ezin dira aurkako balioak izan, ezin dira baztertzailleak izan, bai-zik eta osagarriak; horretarako, gure burua eman eta ekarpena egin behar dugu modu espontaneo eta naturalean, herentzian jaso dugun natura zeken xamarra eraldatzeko eta naturaren eraldaketaren eragilea bera —gure hurkoa— eraldatzeko. 325

Giza bizikidetzaz, gizakiek batak bestea, zein bere berezitasunekin eta izateko moduarekin, onartzen dakiten neurrian gertatzen da. 326

Besteen laguntza izateko, lehenik nork bere buruari lagundu behar dio serioski: elkartasun prozesuari ekiteko, ezinbestekoa da nork bere gogoetari heltzea, zentzu kritiko objektibora joz. Kontua ez da modu gutxi-asko trebean bihotza alde batera uztea gomendatzea, baizik eta bihotzaren gainetik ondo osatutako gizakiak duen hori jartzea: burua. 327

Benetako bakean eta ongizatean bizi diren kolektibitateak honakoak dira: kide bakoitzak bere onura besteen interesarekin bateratuz bilatzen dueneko kolektibitateak. 328

Elkartasuna ez da aldarrikapen teoriko hutsa, baizik eta jardunean eta agerian jarri beharreko zerbait, talde lanaren eta elkartzearen mugak gogo onez onartuz, horixe baita elkarren arteko laguntasuna gauzatzeko modua. 329

Jabetza pribaturako eskubidea ona da, baliagarria baita titularraren askatasuna mantentzeko, baina inondik ere ez gainerako gizakien askatasuna zapaldu, mugatu edo galarazteko. Beraz, gurea denarekin gure nortasunarendako komenigarriena dena egin beharko dugu, nortasun hori zein komunitate barruan dagoen kontuan hartuta, hori kontuan hartu ezik, gainerakoak kaltetu genitzake eta. 330

Jabetzak ez du ondasunen gehiegikeriarako eskubidea ematen: azken finean, gure artean ez dago ondasunak eskuratze-ko eskubide absolutua bereganatzeko moduan senti daitekeen ondasun sortzailerik. Ondasunon existentzian eta sustapenean askok hartu dute parte eta bai erabileran bai aplikazio praktikoan, guztien ongia hartu behar da aintzat eta neurritzat. 331

Elkartasuna tarteka edo norberaren iritziaren arabera praktikan jartzea ez da nahikoa elkartasun hori indar eta giza balio bihurtzeko; palanka hautsia da. 332

Gure ekintzen artean bat ere ez da axolarik gabea, ekintza guztiek daukate oihartzun sozialen bat. 333

Oso aspaldi ez dela, jakintsuak bakarrik lan egiten zuen. Pasteur eta Curie gizaki isolatuak edo zenbait dizipuluz inguratutako maisuak ziren. Gaur egun, soilik taldean egiten da lan. 334

Badakigu kate maila bat ez dela katea, baina katea erabili ezinda gelditzen da kate maila bat hautsiz gero. 335

Benetako elkartasun sentimenduaren froga, hain zuzen ere, norberak denon ondareari egiten dion ekarpena da, eta ez entitatearen bitartez eskatzen eta bilatzen dena. 336

Norbanakoaren eskubideak bezainbeste edo gehiago zaindu behar dira eskubide komunitarioak. 337

Kooperatiba bateko plantillan elkartasun kontzientziaz sartu direnek badakite benetako elkartasuna gauzatzen dela nork berea denon ongiaren alde lagatzen dakien neurrian. 338

Formulazio kooperatibo teorikoaren nahiz praktikoaren elementu konstantea elkartasuna da. 339

Gure indarra ez da borroka bihurtzen, Lankidetzaz baizik. 340

Empresa kooperatibo ona osatzen duten gizakiak gai dira elkartasun testigantza bat emateko eta gogo bizia jartzen dute hobera egiteko, beren ondarea edo kredituetarako gaitasun pertsonala arriskuan jarritz. 341

Bakartasunera ez baina Elkartasunera emanak. 342

Grina komunitarioa, giza aurrerapen kolektiborako grina, nitaz jabetu ahala, ulertuko dut nekazaritza sektorea, alderdi askotan, industria langileena baino ahulagoa dela eta nekazaritza sektorearekiko elkartasuna erakutsiko dut modu askotara. 343

Gizakiarekin lotutako ezer ere ez zait arrotza, esan zuen kristautasun aurreko filosofoak. Gizaki duin batek lotsa sentitu behar du gaizki elikatutako 2.000 milioi gizakiko mundu batean aberatsa izateaz eta aberats gisa bizitzeaz. 344

Beren lanetik bizi diren langileek eta nekazariak elkarrekiko elkartasunean egin behar dute aurrera, beren interesen aldeko borroka komunean indartsuak izateko. 345

Ezin da garapen industrial osasuntsu bat irudikatu baldin eta gure baserritarrak, nekazaritza sektorea, maila berean gartzten ez badira. Aurrerapenak baterakoa izan behar du, harmonikoa. Ez digu balio «Bakoitzak bere astoari arre, eta azkena izorra dadila» esakuneak. Sektore bat ez badoa ondo, gainerakoak ere zurrundu egingo dira. 346

Artzainak elkarrekin borrokan, otsoa indartu. Tamalez, langile mugimenduan izan dira zatiketak. Baina ez da ahaztu behar historiak eta gure esperientziak erakusten dutena: borroka itxaropentsuek porrot egin zuten langileen eta nekaza-

2. Batasuna

rien arteko elkartasun faltagatik, ez baitzuten fronte batu batean integratzen jakin. 347

Elkartasuna eta zintzotasuna berez dira errentagarriak. 348



3

Utopia eta iraultza

3.1. Utopiaren arriskua

Giza ahalegin kontziente eta arduratsuak egindako askotxo edo ia dena, hasieran, ideal ederra baino ez zen izan. 349

Helburu batzuk objektibatu eta beste formula batzuk desmitifikatzeko zereginean etengabeko arreta jarri behar dugu eta horretarako eskatu behar dugu gardentasun sozial handiagoa, eta baita inplikazio eta erantzukizun pertsonal handiagoa ere. Hori beharrezkoa izango dugu txolarreak gurean bazka ez dai-tezen, horiek ez baitiote ereileari aprobetxa dezaketenari be-zainbeste erreparatzen. 350

Gizakiaren izaera artifizioa dela onartuz, eta bai gure inguru-an dagoena bai sortzez edo oinordetza hutsez jasotakoa eral-datu beharra dugula onartuz, agerikoa da ideia onen nahiz betiko ideologiaren funtsa kontrastatu beharko dugula egintze-kin, ideion onarpenak edo aplikazioak dakartzaten egitatee-kin, gauzatzeko orduan ez badugu alienazio berri galgarrietan edo desatseginetan erori nahi. 351

Beti daude baten batzuk erein barik uzta biltzeaz dihardute-nak. 352

Praktikan jartzeko gai ez diren gizakien eskuetan, *ideia onak* morfina arriskutsua izan daitezke. 353

Mesianismo faltsu bat garaitu beharra daukagu. Mesianismo hori oinarrizten da formula gutxi-asko magikoek, eta, jakina, erosoagoek, gure zoria alda dezaketelako itxaropen itsuan. Loteriak, edo zorte hutsa, edozein unetan norbanako baten edo gizaki gutxi batzuen perspektibak aldatzeko formula izan dai-tezke, baina ez dago loteriarik edo zorterik norberaren ahale-ginak eta sakrifizioak ematen dutena baino ordain handiagoa denoi bat-batean emango digunik. 354

Herriaz horrenbeste berba egiten dela-eta, ez dezagun ahantz Herria zerbitzatu nahia baino herria «bahitu» nahia egon daitekeela hor, hau da, herriaren kausa norberak nahi duenez edo lepoan daramanaz identifikatu gura izatea. 355

Herriak ere baditu bere grinak eta bere hutsegiteak, herriak ere bortxatzen du justizia eta lekua egiten dio handinahikeriari eta egoismoari. 356

Utopiak ezin saihestuzkoak dira eta, neurri bateraino, komenigarriak. Baina ez da ahaztu behar «utopia bat atzerakoi bihurtzen dela autoreak bere ametsak pertsoneri inposatu nahi dizkienean, herritarren nahiaren aurka». 357

Denok jasan dezakegun ilusiorik txarrena, hitz hutsekin moz-kortzea da eta ez da arrisku hipotetiko hutsa. 358

Helburu utopikoetatik babestu behar dugu, halako kalifikazioziorik merezi dutenak ere, nahiz eta erakargarriak iruditu, elementu nahasgarriak izan litezke eta. 359

Behin onartuz gero karismadun gutxiengoak edo subjektuak egon daitezkeela, beharrezkoa da karismadun horiek konpentsazio gisa eskaintzen dutena errespetatzea, askatasuna, demokrazia eta halako balioez ari garenean. 360

Egintzen ordua da, eta ez abiatzen diren printzipioetatik hainbeste aldentzen den gauzatze praktikoa duten teoria ugariena. 361

3.2. Iraultza

Iraultzari, gaur egun, *parte hartzea* deitzen zaio. 362

Gure herriak arbuia egin du, betidanik eta senez, indarkeria, indarkerian nahasirik egon bada ere. 363

Salbazioa ez dugu bortizkeriaren eta indarraren bidean topatu behar. Esaera da ezpataz hiltzen duena ezpataz hilko dela; indarkeriaren bidetik ez dela amildegia lautuko, bai ordea sarkonduko. Asko jota ere, hauxe gertatuko da: bastoiaren posizioa aldatuko da, eta goikoa behean eta behekoa goian jarriko dira. 364

Iraultza ezin saihestuzkoa da prozesua galarazi denean eta eboluzioa geldiarazi denean. Erreforma premiazkoa da gauzen garapena gaurkotzeko behar den prozesua eguneratzea, pixka bat bada ere, deskuidatu egin denean. 365

Iraultzaren eta indarkeriaren oihartzunak biziagotu egin dira arlo guztietan, baina hori, zalantza barik, eboluzio eta eraldaketa prozesuek gizakiak asebetetzen ez dituztelako da. 366

Askatasunean sinesteari utzi zaio, salbazioa bortizkerian eta indarrean bilatzen baita, eta hori ezkontezina da askatasunarekin. 367

Madarikatua askatasuna, ukiezintasun hori, eta fedea kendu zaien masei nahiz jateko, janzteko edo familia zaintzeko ezinbestekoa dena ere ukatzen zaien haiei emandako paperezko bermeak. 368

Erdi Aroko legenda baten arabera, bazegoen azti bat sorginak edo maitagarriak hazteko zeregin zailean trebea zena. Sorgin horiek, gero, denetariko gauza zoragarriak egiten eta denetariko trebetasunak erakusten zituzten. Arte hura ika-

si nahi zuen mutil bat aztiarengana jo zuen jakin-minez, eta eskatu zion sekretua erakusteko. Hala egin zuen eta maitagarriak egiten ikasi zuen, baina deskuidatu egin zen, maitagarriei bere borondateari lotuta eusteko sekretua ahaztu zitzaion eta. Behin azti mutilaren eskuetatik libre, maitagarriak erabat aske eta lokabe ibili ziren. Eta, zer gertatu zen? Maitagarriek, besterik gabe, beren egilea akabatu zuten eta azti mutila bere seme-alaben trebetasunaren eta antzearen pean hil zen. Zer gertatu zaio, bada, gizaki modernoari, gauza harrigarriak egiten ikasi eta horrenbeste natura indar askatu ondoren, gero ez badaki indarrok mendea edukitzen eta gizakia bera bada bere obraren lehen biktima? Izan ere, gure zibilizazioaren lehenengo biktima, zibilizazioa naturaren indarrak mendea eustetik abiatuta gauzatzen ez denean, gizakia bera da eta!

369

Bekatuari akabera emateko gizakia akaba liteke, baina, merezi al du?

370

Kooperatibak ahalik eta arreta handiena jarri behar du giza-kiarengan, baina idealizatu barik, baizik eta den bezala hartuta, bere akats eta bertuteekin; eta kooperatibismoa egitean kontuan izan behar da gizakia, ahal dela, eta norberaren jarreraren bitartez, akatsak arinduz eta bertuteak sustatuz.

371

Arriskutsua da gizakia beste gizaki baten idulki gisa jartzen duen teoria. Gure ustean, faltsua.

372

Ez da ona, ezin daiteke ona izan, iraultza edo gestio eraldatzailea, baldin eta horretan hasteko geure burua hankak eta eskuak lotuta ematea exijitzen eta inposatzen bazaigu, hau da, askatasun, duintasun edo parte hartze hipotekekin. Berreskuratzeko promesekin, jakina, baina gure zalantzak inork desegin ahal izan gabe hala egin ezean.

373

3. Utopia eta iraultza

Ez dezagun ahantzi gizakia, ez iraultzarako ez iraultzan ez eraikuntzan. 374

Joko okerra da, historiak gaztigitzen digunez, balio horiek hipotekatzetik abiatzea, gero berreskuratzeko. Estrategia horrekin, eskrupulu gutxien dutenek izaten dute hogeita hamai-ka eskutik, hau da, abenturazaleek eta, beti, tiranoek. 375

Esan izan da tiraniak esklaboak behar dituela eta esklaboen pentsamoldea askotariko baliabideak baliatuz osatzen da, izendatzaile komun batekin: gehienen iritzi pertsonala subrogatzea eta inoren aginduen aurrean parte hartzerik eta irizpiderik gabe men eginaraztea. 376

Gaur egun oihartzuna daukaten bahiketa indibidualek ez dizkigute ahantzarazi behar kolektibitate edo herri osoek jasan dituzten eta jasaten dituzten bahiketak. 377

Argi dago indarrrik gabe ez dela lortzen kontzientziak berak legitimatzen eta are eskatzen duena. Baina gizakien kontzientzian, batasunean eta elkartasunean errotutako indar bat daukagun bitartean, indar horri emango diogu lehentasuna eta nagusitasuna, jokoaren eta instintuen leherketaren kaltean. 378

Industria kooperatibek emandako seinaleek bistan da zer adierazten duten: aurrerapen soziala eta zintzotasunez bilatutako sustapena benetako baketze sozialerako biderik onena direla. 379

Ez gara duintasunarekin jaiotzen, duintasuna egunero-egunero sortuz doa-eta, agindu sakon eta pertsonal batzuei lotuta biziz, nork bere burua ahalegin jarraitu baten bidez gauzatu. Horixe da iraultzak behar duen itxuraldatzea bere heriotza ez lantzeko eta bukaerara eduki barik ez iristeko. 380

Behar dugun iraultzak lanean oinarritu behar du, ez mitoetan; batasuna lortu behar dugu, egian bermatuz eta sekula ere ez gezurrean, hipokrisian eta hutsegitean. Badira korronte batzuk, «kontsumitzen duen kontsumo gizartea» helburu, ongizate material hutsaren bidez drogatzen ahal gaituztenak, non gizakia gauza gisa kotizatzen den eta ez pertsona gisa; korronte horiei erantzuten die, gure artean, mugimendu kooperatiboak, pertsona gisa parte hartu eta jardutera deituz eta lagunduz. Eta pertsonak garen aldetik, gure ekimena, erantzukizuna eta gure sormena erabiltzen ditugu sorkuntzarako eta lanerako lehenengo zelula edo organismoak abiatuz, hau da, enpresatik abiatuz. Hala, ekonomia eraldatzeko jarrera berri bat abiarazi ahal izango dugu eta antolamendu sozio-ekonomiko berri bat sortu, gizakiaren duintasunarekin eta giza komunitateen eskakizunekin koherentea izango dena. 381

Laburbilduz, Kristo komunista izan zen, baldin eta honako hau komunistatzat hartzen badugu: «parteka ezazu zure ogia goseak dagoenarekin eta har itzazu zure etxean pobreak eta etxegabeak», edo bi abrigo duenari bat ere ez duenari bat emateko agintzen dionean..., baina ez zuen eman beste bati abrigoa kentzeko agindurik, ez eta inoren etxean sartu eta lapurtzekorik ere, izan ere, bestearen eskubideak ez bortxatzeko agindu naturala berretsi zuen. 382

Iraultza ekonomikoa iraultza morala izango da, edo ez da izango. Iraultza morala iraultza ekonomikoa izango da, edo ez da izango. 383

Herri bat ez da historiarik gabe sortzen, eta historia ez da histeriaz egiten. Herriak bere osasuna eta kemen fisiko nahiz morala sustatu behar ditu, eta hori egingo du modu kontziente eta arduratsuan jokatzera behartuta dagoen neurrian, interesatzen zaiona zer den eta zenbat kostatuko zaion jakinik. Ez dira gauza bera herritik zerbitzatzea eta herria zerbitzatzea. 384

3. Utopia eta iraultza



40

Errealismoa eta ordena berria

4.1. Arrazionaltasuna

Guk aldarrikatzen duguna da bai etsipenetik bai kontrol bako matxinadatik bereizten gaituzten arrazionaltasuna eta diziplina. 385

Ez dira gauza bera aholku ematea eta garia ematea. 386

Dena hobetu daiteke eta arrazoiak nagusi izan behar du pizgarri bidez prestuki eman den lana antolatzeko orduan. 387

Gogoeta, neurritasuna, arrazionaltasuna eta zentzu ona dira gizakia gizaki gisa egiaztatzen dutenak. 388

Gure ezaugarrietako bat zentzu praktikoa izan da, *aukeren* alorrean jokatzeko jakitea, idealak aldatu gabe eta idealoi uko egin gabe. Denon onerako, aukerak biltzen eta ez alperrik galtzen jakin dugu. Elkartze prozesuak ez dira bideragarriak neurritasun barik, batzuek eta besteek onartu behar dituzte eta, normalean, denek sakrifikatu behar dute beren posiziotik zerbait. Erradikalizazioek hautsi egiten dituzte gure herriaren kualitatetik konstanteenak eta herritarren giza nahiz gizarte bertuteak. 389

Errealitateei egin behar zaie aurre, hipotesiei bainoago; eta datu eta egintza zehatzei buruz hausnartu, formulazio ideologiko hutsei buruz bainoago. 390

Konturatu gara teoria beharrezkoa dela, bai, baina horrekin ez dela nahikoa: «Ibilian-ibilian egiten da bidea». 391

Ideia onak, errealitate bihurtzen direnak dira. 392

Triunfalismo gutxiago eta errealismo gehiago; berriketa gutxiago eta egintza gehiago; profeta gutxiago eta hitzeko gizon gehiago; ameslari gutxiago eta gizon praktikoa gehiago. Ideia

onak dira obra bihurtzen direnak eta hitz onak dira nork bere egintzekin bermatzen dituenak. 393

Ez dihardugu idealismo kimerikoei jarraika. Errealistak gara; jakitun gara zer egin ahal dugun eta zer ez. 394

Espediente soil eta errazekin, puxikak oratzera baino ez gara iritsiko, oratzeko orduan hustu eta desegin egiten diren puxikak. 395

Errealismoa eta ordena berria. Hobeto ez bizitzearen arrazoia ez dugu jakintza falta, egite falta baizik; gehien behar duguna, formulatan dakigun askotza horretatik gehixeago egitea da, gure bizitza hobetzeko. Pentsatzeko gaitasun adina egiteko gaitasun daukagu. Ez pentsatzeko ez egiteko behar ez denarekin arreta galdu eta barreiatu egiten gara larregi, berriketan eta eztabaidan, teoria hutsak errealitateekin konparatuz. Ez al da egia? 396

Egiazki, gure pentsatzeko moduan eta gure ekintzetan aldaketak egin behar direla: horixe dugu abiapuntua. Gure artean aldatzeko itxaropena dugun gauzetan jartzen dugu arreta, besteengan aldatu ezin ditugun gauzetan bainoago. 397

Arazoak ezagutzea dugu arazook konpontzeko lehen urratsa. 398

Oinarrizko zentzu praktiko batek bultzatzen gaitu benetan alda dezakeguna aldatzera; batez ere behin eraldatu ondoren, geroagoko denetariko eboluzioetarako bermaleku hobe gerta daki-gukeena. 399

Duintasun berberarekin onartu behar dugu lege ekonomikoe-kiko eta fisikoekiko morrontza, kasu batean zein bestean gure pertsonen funtsezko eskakizunak babespean jarriz. 400

4. Errealismoa eta ordena berria

Men egin behar diogu uneko errealitateari, nahiz eta gure indar guztiakin tematuko garen errealitate hori aldatzen, eta horretarako gordeko eta erabiliko ditugu gure indar eta baliabide guztiak. 401

Aurrera egiteko, arazoei aurre egin behar zaie eta helburuak zentzuz bete. 402

Bizitza, existentzia, konplexua da, gauzak diren modukoak dira eta ez guk izatea nahi genukeen modukoak. 403

Oker dabil bizitzan arazo bat baino ez dagoela uste duena: bizitza arazoz josirik dago. 404

Gizaki praktiko eta kontsekuenteak izateko, egunero egin daitekeen erreformari heldu behar diogu. 405

Ideala, egin daitekeen ongia egitea da, eta ez amesten dena. 406

Denok eman dezakegu gure iritzia, baina egiteko gai direnak izango dira Herrialdea eraikiko dutenak. 407

Obra handiak harriz harri eraikitzen dira: etengabe eta irmo saiatuz. Izan gaitetzen eraikitzeko gai. Gure obrekin mihiarekin baino gehiago eraikitzen dugu. 408

Berriz ere gogoratuko dugu arazo handiak eta auzi larriak konpontzeko moduetako bat premiei banan-banan heldu eta konpontzea dela. 409

Ideiak eta ildoak —behintzat horietako asko— onak izan daitezke, bai, baina egintzak, esperientzia, ez dira gutxietsi behar, batez ere esperientzia horrek ideiak eta ildoak justifikatzen dituen balioei erantzuten dienean. Esperientziak zilegitasuna ematen du, giza kontzientzia heldu eta partekatua-

ren aginduei lotuta baitago, askatasunean aurrera egiteko eta justizia hedatzeko prozesu bat onartzen dugun neurrian eta, honenbestez, desiratutako ondoz ondoko maila eta alderdie-tan aplikatzeko erabakitasuna dugun neurrian. 410

4.2. Etorkizunaren ikuspegia

Orainari hutsik ez egiteko eta biharko egunean inor zapuzturik ez uzteko, eraginkorrak eta praktikoak izan behar dugu. Denboraren, herriaren epaiari gomendatzen gatzaizkio, rol ez hain distiratsuak edo zaratatsuak betetzera etsita, nahiz eta horrek ez duen esan nahi gure herriaren askatasunerako eta aurrerabide-rako ezinbestekoak ez direnik. 411

Koiunturak edo biziak ezartzen digun zeregina nekeza eta zaila bada, herrialdearen ongia eta sustapena ahotan hartzen dutenek aintzat hartu beharko dituzte indar guztiak, erreserba guztiak. 412

Egiteko gai izango ginatekeenaren bidez erakutsi beharko genuke denok herria maite dugula, manaren edo amerikanotxoen zain egon barik, amerikanotxook indigenak izanda ere. 413

Sekula ere ez gara zeruan esnatuko hara nola iritsi garen gure buruari galdezka. 414

Lege sozial batzuekin batera, lege ekonomikoak ere hor dau-dela aitortu behar dugu. 415

Ideiarik onenak eta proiekturik onenak idealaren planoan geratu ohi dira behar diren baliabide ekonomikoek erantzuten ez dutenean. 416

4. Errealismoa eta ordena berria

Eman arrain bat gizon bati eta egun baterako jana izango du. Irakatsi arrantzan egiten eta geratzen zaion bizitza osoan jango du. 417

Herriak, zuhaitzak bezala, indartsu eta sendo hazten dira zuztar sakonak botatzen dituztenean: komunitate baten ezkutuko zuztarrak ondo egindako inbertsioak dira. 418

Konstante historikoa da gizakiak, denbora eta hurkoak kontuan hartu barik, bere burua gauzatzeko eta bere helburuak betetzeko duen gaitasun eza. Denbora eta elkartasuna oinarritzko faktoreak dira; ez dira giza sustapenerako eta eraldaketa sozialerako faktore funsgabeak. Uzta biltzeko, erein eta prestatu egin beharra dago; besteei laguntza eskatu ahal izan behar diegu eta, ondorioz, exijitu baino zertxobait gehiago eman behar dugu indartzeko. 419

Kooperatibisten aliatu baliodunak, beti eta leku guztietan eta gure lan komunitateen oinarriari leial izaten jarraitzen dugun bitartean, ekintzak eta denbora izan behar dira, edo, hobeto eta aski esanda, ekintzok erregistratzen dituen denbora. 420

Unean uneko egoerak, berez, ez dira ez onak ez txarrak, egoerotan jarduteko aintzat hartu beharreko errealitatea baino ez dira. 421

Garai guztiak dira txarrak unean uneko egoeren azpian geratzen direnentzat. Hori ekiditeko, garaiz jardun beharra dago. 422

Gogora dezagun ez dagoela kasualitaterik, ondorioak baizik. 423

Garuna eta bihotza, diziplina eta zentzua; denborari denbora eman, eta aurrera. Justizia eta egia ez dautza denboran baina existitu ere ez dira egiten haragitu ezean. 424

Gaur egun, ez badiegu gure ingurua garatzeko eskakizunei oraingo beharrei bezainbeste begiratzen, porrotera kondentuta egongo gara. 425

Jaiotzen mantsoak izateak —gizakia halakoa baita— ez du horrenbeste axola, baldin eta bizian eta aurrerabidean dinamikoak eta indartsuak izan ahal bagara. 426

Orainak, bikaina izanda ere, iraungitze data darama berekin, etorkizunetik askatuz doan neurrian. 427

Etorkizuna ez da inoiz esaten den bezain duda-mudakoa eta guk uste baino baldintzatuago dago, eta, horri dagokionez, nahieran sustatzeko geureganatu nahi dugunak bezainbat baldintzatzen du interesatzen zaiguna alde batera uzteak. 428

4.3. Ordena kooperatibo berria

Errealistak eta pragmatikoak izateak ez dakar idealei uko egitea; baina idealak ez dira kimera eta amets ederrekin nahastu behar, gauzatu beharreko helburu izan behar dute eta. 429

Gerrillak ez datozkie herriei ondo. Baina denontzako sustapen aukeretan sendotzen ez den bakea ez da oso aintzat hartzekoa ere. Baieztatua dago gaur egun bakeari garapen deitzen zaiola. 430

Kooperatiba izatera iritsi gara garapen eta sustapen sozialeko arazo atzeraezinak konpontzeko egokia delakoan eta beste ordena sozial eta ekonomiko bat —ondoriozko deribazio guztiekin— bultzatzeko modu eraginkorra delakoan; ez dugu koo-

4. Errealismoa eta ordena berria

peratiba sustapen pertsonalerako bide hustzat hartzen, are gutxiago sustapen komunitarioaz ez kezkatzeko eta deskonektatzeko bide indibidualtzat. 431

Lankidetzeta da gizakia ordena sozial berri bat osatuko duen prozesu ekonomiko eta sozialean benetan integratzea; kooperatibistek lan munduan justizia gose eta egarri diren guztiekin bat eginik jo behar dute azken helburu horren bila. 432

Kooperatibek ez dute mundu itxiak izan behar, irradiazio sozialerako zentroak baizik: ez gara konkistatutako mundu batean bizi, baizik eta justizia sozialaren eta giza ordena bidezko baten aldeko gudu zelaian. 433

Elkartasun espiritu ireki batek elikatzen du mugimendu kooperatibista. Helburua urruti eta oso goian dago: mundu mailako erregimen kooperatibista solidarioaren eraikuntzan. 434

Gizakiak, bere helburuari leial, natura menderatu eta arrazoiaren, boterearen eta bertutearen bidez aldatu edo eraldatu egin behar du. Mundu berri bat egin behar du, lehen-lehenik gizatiarra izango den mundu bat, gizonaren neurrira egina eta Jainkoaren gogokoa, Jainkoak egin baitu gizakia kreazioaren errege. 435

Ordena sozial berri bat ezartzeko, elkartasunez jardun behar dugu eta ez gerrillari gisa. 436

Helburu zehatz bat lortu nahi duenarentzat inoiz ez da berandu. Nahikoa da nork bere burua ematea eta erabateko erabakitasuna izatea. 437

Ez dezagun pentsa beste lan egitura batzuetan, bidegabeke-ria edo tirania gutxi-asko estalietarako arriskurik gabeko antolaketa sistemetan, baldin eta komunitateko kide garenok

ez bagaude horrenbeste arazo konplexuri erantzuteko hobeto prestaturik. 438

Ordena sozial berri baten irrikaz gaudenok horrenbeste deitoratzen dugun morrontza soziala ez da amaituko denok giza prestakuntzaz eta haurren etorkizunaz gehiago arduratzen ez garen bitartean. 439

Egiturak sakonki eraldatu nahi baditugu, ordena sozial bidezkoago eta gizatiarrago bat nahi badugu, komunitateko sektorerik ugarienak, lehenik, ugaltzen diren ondasunak eskuratze-ko aukera izatearen alde egon behar dugu, eta horretarako ona izango da bere bizkarretik iraupen handiko beste ondasun batzuk ekoitzi beharretik libre geratzea. 440

Ez beza inork pentsa gudu soil batean egia osoa edo justizia osoa ager daitekeenik; bai ordea egiaren bat eta justiziaren bat. 441

Lurralde arteko elkartasuna. Ezinbestekoa da, beraz, probintzia garatuek defentsa jarrera hartu beharrean, irekiera eta elkartasun handiz jokatzea, bai Guztien Ongiaren gestoreen aldetik bai herritar xumeen aldetik. 442

Gizarte osasuntsu bat hauxe da: gizarte bat non bakoitza bere merituen arabera bizi den eta gero eta zailagoa den inoren kontura bizitzea. 443

Entitate kooperatiboek aurrerapenari, garapenari eta ordena sozial berri bati lotutako elementuak izan behar dute. 444

4. Errealismoa eta ordena berria



5.

Enpresa kooperatiboa

5.1. Espiritu kooperatiboa

Lana, garapenaren eta sustapenaren oinarri irmoa da. Batasuna, denon indarrak multiplikatzen dituen palanka da. Lankidetzaz, elkartasun erregimen bat da guretzat, lana, sustapen pertsonalerako eta kolektiborako tresna egoki bihurtzen da. 445

Enpresa lehenengo zelula ekonomiko soziala da, eta zelula horretan ezarri dugu lanaren eta kapitalaren arteko funtsezko erlazioa, halako moldez non pertsona, hau da, giza kapitala, ekonomiaren motorrik inportanteena ez ezik ekonomiaren helburua ere izango den. 446

Gizakiek egiten dituzte enpresak: gaitasun tekniko eta moralak duten gizakiek. 447

Enpresa kooperatiboa bizirik dagoen organismo bat da; komunitate bateko pertsonen elkarte bat da, elkartasunean oinarritzen dena, eta elkartasun horren kontzientzia da indar bultzatzailea, non gure konfiantza jarri behar dugun. 448

Kooperatiba egitura bat da eta egitura horretan lana eta pertsona boterearen iturria dira; kapitalak, berriz, izaera instrumental eta mendekoa dauka. 449

Mugimendu kooperatiboa ahalegin ekonomiko bat da, hezkuntza ekintza bihurtzen dena; edo hezkuntza ahalegin bat da, ekintza ekonomikoa eraldaketarako bide gisa erabiltzen duena. 450

Bai enpresaburuen bai langileen egungo posizio mentalak eta administratiboak sakonki berrikusi barik, ezin zaio enpresa politika egoki eta merezitako bat ezarri horren zabala den lankidetzaz oinarri bati. 451

Kooperatibismoaren xedea ez da enpresaren jabetza edo gestioa eskuz aldatzea, haren izaera eta funtzio soziala baizik. 452

Lankidetzak obra kolektibo batera deitzen ditu gizakiak, baina bakoitzak bere erantzukizuna dauka. Norbanakoaren garapena da, ez besteen kontra, besteekin baizik. Helburua pertsona da, ez gainerakoak zapaltzera daraman asmo sendoko edo arriskuz beteriko munstrokeriaren garapena, baizik eta norbanakoaren garapena, onetik eta sakratutik duen horretan. Gizakiaren hurbileko zerbait da. Filosofia kooperatibistak uko egiten die bai giza izaeraren ikusmolde kolektibistari bai liberalari. Norbanakoaren balioa aitortzen du, eta norbanakoa berezi eta bakartzat hartzen, baina azpimarratzen du norbanakoa ezin dela erabat bera izan berak osatzen duen munduarekin sorkuntzazko, espirituzko eta material produkzioko harremanetan sartu ezean. 453

Lankidetzan ez da gizaki deserroturik egotea ulertzen, lankidetzak ez baita paseko hegaztientzako habia. 455

Kooperatiba batean sartzen denak ez du pentsatu behar desiragarria eta eskuragarria den zerbaitetan sartu dela eta ez duela besteengan pentsatu behar izango. 456

Kapitalismotik gutxien desio daitekeena kapitalik gabeko kapitalisten trafikoa eta jokia den bezala, onartu behar dugu antzeko zerbait gertatzen dela kooperatibismoan, batzuei jasanezina suerta dakieke-eta elkertasunik eta komunitarismo objektiborik gabeko kooperatibisten presentzia. 457

Lankidetzak da norberaren borondatearen mugak onartzen jakin duten pertsonen arteko batasuna, guztien ongiak hala eskatzen duen neurrian. 458

5. Enpresa kooperatiboa

Ideia kooperatiboaren onarpenak eta garapenak beste eragin-garri bati, beste ikuspegi bati erantzun behar diote, eta mugimenduaren indarra eta kategoria morala beste gauza batean oinarritzen dira. Gizakien artean lankidetzan jardutea eta elkartzea, elkartasun legearen gauzatze eta adierazpentzat hartu behar dugu; baita gero eta lasterrago doan aurrerapenaren oinarritzat ere. Kooperatibistak garen aldetik, gure ideala izan behar da benetako giza elkartasuna gauzatzea —Jainkoak horixe nahi baitu— eta, elkartasun horren bidez, gizakiek aurrera egitea arlo guztietan. 459

Kooperatibismoa onartzea elkartasunean sinestea da eta horretan sinesten duenak jadanik ezin dio mugarik jarri elkartasunaren aplikazio eremuari: giza elkartasuna hartzigarri aktibo eta indartsu bat da, bere aplikazio zirkulua zabaltzen den neurrian multiplikatzeko den indar bat. 460

Gure kooperatibek, lehenik eta behin, baliagarriak izan behar dute bertan justizia sozialaren gotorlekuak bilatzen dituztenentzat eta ez beren espiritu kontserbadorearendako babespe edo leku seguruak bilatzen dituztenentzat. 461

Gure zintzotasunak, elkartasunak eta hobetzeko grinak gaur egun ametzekoak irudi dezaketen ikuspegiak ireki ditzakete, eta, egiazki, ez dira ametzekoak egungo errealitate ekonomiko-sozialak ezagutzen dituztenen aburuz. 462

Kooperatibismoak gizakian, lanean, zintzotasunean eta giza bizikidetzan jarritako fedea baieztatzen du, sustapen iraunkor eta progresiboa helburu. 463

Kooperatibisten buruan badago ideia bat, alegia, etorkizuneko gizartea seguruenik askotarikoa izango dela arlo guztietan, baita arlo ekonomikoan ere: batera adostuko dira ekonomia publikoa eta pribatua, merkaturia eta plangintza, ezaugarri

paternalista, kapitalista edo soziala duten entitateak: koiuntura bakoitzak, jarduera bakoitzaren izaerak eta komunitate bakoitzaren eboluzio eta garapen mailak lehenetasunez tratatu beharko dira, baina ez eskusiboki, baldin eta benetan gizakiarengan sinesten badugu eta gizakia bera, gizakiaren askatasuna, justizia eta demokrazia maite baditugu. 464

Kooperatibismoak hauxe du ona: gizakia bere arazoan aurrean jartzen saiatzen da, ez bakarrik, baizik eta modu solidarioan, beste batzuekin bat eginda. 465

5.2. Gestio kooperatiboa

Empresak ezin du eraginkortasun birtualtasunik galdu, eta ez du galdu behar, enpresan bertan giza balioek baliabide ekonomiko edo material hutsen gainean erabateko lehenetasuna izateagatik; hori dela-eta, hain zuzen, nabarmendu egin behar ditu eraginkortasuna eta kalitatea. 466

Hasteko, enpresa gestioa gizarteratu beharraz kontzientzia hartu behar dugu eta, hori gauzatzeko, egitura nahiz helburu berriekin bideratu behar dugu. 467

Gizarte batek giza handitasunaren garapena seriozki planifikatuko badu, ardura eta kalitate handieneko lanpostuak hartzeko gaitasuna izango duten gizakiz osatutako plantilla bat eduki beharko du, eta, hori hala, gizaki horiek ez dute ez norbanako gisa, ez familia gisa, gainerako herritarrak baino goragoko maila batean bizitzea exijituko. 468

Industria produkzioaren alor konplexuan, zailtasunetatik onik atera nahi duten entitate kooperatiboek gidari aditu eta trebeak behar dituzte, izan ere, gidariok izango dira zerbitzua ematearen eta eskuzabal izatearen zentzua barren-barrenean

grabatuta eramango dutenak eta beren bidean sortuko diren tentazio ugariei etengabe desafio egiteko gai izan beharko dutenak. 469

Bikote ona osatu behar dute: bere agintepeko gizakiak sustatzen tematutako zuzendaritzak eta gestore horiei sinesgarritasun handia ematen dien komunitateak. 470

Kate batean, kate maila guzti-guztiak dira ezinbestekoak; kate horretan bakoitza non kokatuta dagoen, berriz, ez da horren inportantea. Halako zerbait gertatzen da ondo eraturako eta garaturako komunitateetan. 471

Dirudunen nahiz pribilegiatuen eta inkorfomista erradikal eta sistematikoen gutxiengoek ez dute oztopo izan behar; aitzitik, akuilu izango dira kooperatiba oinarritzen den printzipio sozialei leialtasun zorrotzagoz jarraitzeko eta erabat parte-katutako eta eraginkortasunak bermatutako parte hartze eta gestio erregimen bati eusteko. 472

Guztion ongia kooperatibako kideen diziplina mailaren eta elkarrenganako konfiantzaren mende egoten da, bere garaian kargutik ken daitezkeen zuzendarien zentzu onaren eta huts egiteen mende bainoago: hobe da bigarrenarekin halako tolerantzia bat izatea, lehenengoaren aurrean sor eta gor gelditzea baino. 473

Gaitasuna daukaten mendekoek, azkenean, baztertu egiten dituzte gaitasunik gabeko agintariak. 474

Konfiantza itsua opari pozoitua da. 475

Zuzendaritzan ondo jarduteko, lortu behar dena da bakoitza bere gaitasunen arabera lanpostu eta jardueretan aritzea. 476

Jar dezagun behar den arreta batzar orokorretan eta eman diezaiegun behar duten bizitasuna. 477

Lankidetzeta bateraezina da edozelako giza morrontzarekin. Gizakiak, gizaki diren aldetik, ezin dira beren giza balioak arriskuan jartzen dituzten mendekotasunen pean jarri. 478

Kooperatibistok nabarmendu behar gara gure konpromisorako gaitasunaren bitartez, gestioan aplikatzeko gai garen aurreikuspen, plangintza, antolamendu eta proiektzio mailaren bitartez. 479

Azpiantolaketa ez da askatasuna errespetatzearekin nahastu behar. 480

Behartuta gaude langile herria izatera, baita merkatari herria izatera ere. Merkatuak eduki behar dira gauza batzuk erosi eta beste batzuk saltzeko. Hau da, gure egoeran funtsezkoa da trukea eta trukeak mendekotasun bat darama berekin. Mendekotasun hori bideragarri egin behar dugu gure produktuen trukearen bidez, eta, produktuok zenbat eta desiragarriagoak izan besteentzat kalitatea edo erosteko baldintzak tarteko, bada, bideragarriagoa izango da parekoen edo lagunen arteko mendekotasuna. 481

Agintariak eta kualifikazio handiko langileak, hots, guri kooperatiboa gidatzen dutenak, lankidetzaren bidez honako helburu hau lortzearen arduradun nagusiak dira: enpresaren esparruan elkartasunaren zentzua txertatzea, inor behartu gabe, soilik doktrinazko edukiaren eta egungo lan munduak eskatzen duen justiziaren zentzuaren eraginez. 482

Ontzi bat ozeanoan barrena ondo gidatzeko, trebetasuna behar da; aurreikusteko gaitasuna, ausardia eta arriskuaren zentzua

5. Enpresa kooperatiboa

edukitzea eska dezake, eta, beraz, aginpide bare eta asaldagaitz bat izatea. 483

Hau da, enpresa kooperatiboa honelaxe identifikatu behar da: bultzada eta gestio komunitarioko enpresa publiko gisa, egitura ireki batekin eta historikoki beharrezkoa den teknologiarako burmuin eta profesional egokiak integratzeko nahikoa mekanismorekin, kontzertu ekonomiko eta sozialean printzipio demokratiko eta humanisten presentzia gaurko egunerako egokia eta balioduna izan dadin. 484

Gure kooperatibek benetako enpresa izan behar dute eta egitura desberdineko beste entitate batzuekiko lehian lerrokaturata egon behar dute, bai produktibitate koefizienteen lorpenari dagokionez bai eraginkortasunari dagokionez. 485

Kapitalak erakartzeko eta bere produktibitate industrialaren eskakizunen mailan jartzeko egitura gaitasunik ez duen kooperatibismoa soluzio igarokor bat da, formula ahikor bat. 486

Uko egin diogu sistema kapitalistari, baina ez gero eta kapital handiagoak izateko beharrari. 487

Arriskutsua da kooperatiba bakoitza mundu itxi bat bihurtzea. Kooperatiba arteko elkartasunean pentsatu behar dugu, horixe baita baliabide eta bide bakarra hazkundearekin eta heldutasunarekin loturiko beste arazo batzuei erantzuteko: egoerei egokituko zaien bizi espazio batean pentsatu beharra dago. 488

Mugimendu kooperatiboak elkartasun, justizia eta askatasun zuztar sakonak izan behar ditu oinarritzko unitate bakoitzean —esaterako, lan komunitateetan— konprometitzen direnen gogoan; baina, era berean, plano ekonomiko, finantzario, sozial eta politikoko beste entitate batzuk eraldatu behar ditu, mugimenduaren jatorrizko sentimenduei jarraituz. 489

Urtegiaren egotera etsitzen duten edo urtegiaren besterik gabe onartzen duten urek ez diote beren leku naturalari, hots, ozeanoari, uko egiten: murriztu gabe iristen dira urok eta urtegiak bizitzeko eta moldatzeko jarri dien sistema horri esker beste lur batzuk emankortzen dituzten, turbina handiak mugiarazten, bidean energia eta joritasuna sortzen; hori guztia ozeanoak jaso behar duen ur emaria murriztu barik. Guk, herriarrok, jarrai dezakegu gaur egun lortzen duguna gure baliabideen bitartez lortzen eta,aldi berean, eraginkortasun berri bat, emankortasun berri bat edukitzea lortzen, baliabideon erabilera eta administrazioa pixka bat konbinatuz, besterik ez. Euskadiko Kutxa da gure eustorma, gure administrazio sistema, gure baliabideei organizazio batek eta administrazio batek eman ditzaketen abantailak ateratzen dizkiona, ahalik eta fidagarritasunik eta ordenarik handiena ez ezik, gure gordailu edo aurrezkiei arintasuna edo, hitz teknikoa erabili nahi izanez gero, likidezia egokia ere eskainiz. 490

5.3. Langileak eta enpresaburuak

Gizakia gizaki da soziala den neurrian. Esan liteke halako zerbaiti erantzuten diola kooperatibisten artean oihartzun egiten duen formulazio sozial honi, hots: jabeak baino, enpresaburuak izan nahi dugu. 491

Kooperatibista, langilea ez ezik enpresaburua ere bada. 492

Denok jabe eta denok enpresaburu: denok, bereizkeriarik egin gabe, ezietan eta ozpinetan, kapital erabilgarriak jarriz eta egin beharreko lana eginez. 493

Langileak, zeinak orain arte, errebindikazioetarako, elkarrean aurkitu duen bere defentsa, aurrera egin behar du eta bere posizioa sendotu, bizitza ekonomikoan modu kontziente

eta programatuan esku hartuz, kontsumorako ondasunak ez ezik produkzioa ere mugituz. 494

Guretzat ez da nahikoa gizartea —gizartea diogunean kolektibitate anonimo eta formagabe batez ari gara— oiloen jabea izatearekin, baldin eta posible bada gu geu izatea jabeak, pertsonalki edo modu solidarioan eta giza eskala komunitarioan. 495

Guretzat enpresak ez du izan behar gurekin zerikusirik ez duen oilo errule bat, soilik haren arrautzez gozatu ahal izateko. 496

Langile klasearen adin nagusitasuna finkatuko da langile klaseak posizio irmo bat finkatzen duenean produkzio ondasunen jabetzan eta, ondorioz, ekonomiaren alor guztietan eragiten duenean. 497

Lanaren betebeharra eta hortik datorren guztia seriotasunez hartzea, gaur egun eta gure kasuan, langileen samalda handiari egin dakioken atxikimendu frogarik onena da. Guri, lana gure kabuz eta gure kontzientziaren, duintasunaren eta eskubideen arabera antolatu dugunoi dagokigu, inori baino gehiago, langilea egiteko kapaz dena behar bezala erakustea, eta egiaztatzea langilea benetako heldutasunera iritsi dela eskubide osoz jarduera sozio-ekonomikoak gidatzeko eta ondoriozko esku hartze politikoetan jarduteko. 498

Beharrezkoa dugu kontsumitzaile gutxi-asko zorionekoak baino zerbait gehiago izatera iristeko erabakitasuna; inbertitzailak ere izan behar dugu, zeren eta kontsumitzaile soil gisa, azken finean, egiten duguna haxe baita: gure esplotatzaileei esku batekin eman bestearekin kendu nahi dieguna. 499

Bi esku daukagu eta erritmo berera egokituta joan behar duten bi funtzio hauen ardura onartu behar dugu: batetik, in-

darberritzeko eta ahaleginak konpentsatzeko behar den kontsumoarena, eta, bestetik, inbertsioarena, etorkizunera begira jarri eta belaunaldien artean elkartasuna sustatzeko ezinbestekoa dena. Eta inbertitzaile funtzioa egin ahal izateko, batasuna behar dugu, orain artean itxurazko iraupena ziurtatzeko behar izan duguna, edo are gehiago. 500

Badaezpada ere, ez dezagun oinarri ekonomikorik gabeko emantzipazioetan sinetsi; kooperatibismoa langilearen benetako askapena izatea nahi badugu, onartu beharra daukagu esku hartze eta erantzukizun ekonomikoa dagokigula, gure entitateak gure oinarri propioen gainean sendotzeko. 501

Fedea izan behar dugu gure boterean, gure batasunaren eta gure elkartasunaren boterean, bitzta sozial eta ekonomiko osoan dugun inplikazioan, bigarren mailako postuetara lerratu barik. 502

Diru ezarpen bat egiten duen bakoitzean, edo libreta bat aukeratzen duenean edo bera ordezkatzeko erakunde sozialak aukeratzen dituenean, edo bere erreserbak inbertitzeko orduan langile batek hartzen dituen erabakiak beste neurri sozial eta politiko asko bezain garrantzitsuak edo garrantzitsuagoak izan daitezke ordena sozial berri bat sustatzeko. Akaso baieztza genezake gaur egungo langileak inpaktu handiagoa eragin dezakeela aurreztaile eta inbertitzaile gisa herritar edo sindikalista gisa baino; baina jakina, bere indarraren gailurrera iritsi ahal izateko, bai aurreztaile eta inbertitzaile gisa bai herritar eta sindikalista gisa, organizazio bat behar du. 503

Langileak, gaur egun, aintzat hartu behar du daukan indar ekonomikoa, bere aurrezkien eta ondo bideratutako inbertsioaren bitartez daukan ekintzarako aukerak. 504

Kooperatibistok gara langileen heldutasun ezaren topikoa desegin dezakegunak eta demokrazia sozialari —zeina sarritan aurrerapen ekonomikorako eragozpen gisa aurkezten den— begiraterakoan jarri ohi diren erreparaoak desagerrarazi behar ditugunak, hori beharrezkoa baita progresiboki goraka datozen giza premiei egoki erantzuteko. 505

Baiaesten dugu langileek badutela gaitasuna erantzukizunik handinez eta pertsonen duintasunari begirunerik handiena ematen dioten formulen bidez antolatzeko. 506

Langileak ez dira bigarren mailako herritarrak. Langileak adin txikikotzat hartzen jarraitzen dugu, pentsaturik beste batzuek ordezkatu behar dituztela beti zenbait gaitasun eta posiziotan, eta horrekin bukatu beharra dago. Hori dela eta, hain zuzen, ez dago arrazoirik langileen baliabideak edo aurrezkiak administrazio espezifiko bat behar duten zerbaitzat jotzen jarraitzeko. Haien funtsak gainerako herritarrenen pareko jabetza dira eta, jabetza diren aldetik, berekin daramatzate arriskua eta erantzukizuna. 507

Ez da nahikoa morrontza indibiduala saihestean pentsatzea, baldin eta bien bitartean morrontza kolektiboetan erortzeko arriskuan bagaude. 508

Guri beldur handiagoa eragiten digu, etorkizun kooperatiborako, kooperatibistek koiuntura bakoitzean kontsumora bideratzen dutena zuhurra litzatekeena baino gehiago izatea. Inguratzen gaituen mundu kapitalista lasai geratuko da kooperatibistok pribilegiatuen bizimodua egiten dugun egunean, zeren eta hori hala bada, gure inbertsio tasen murrizketa edo gure enpresen ahultasunak adieraziko baitute hedatzeko eta borrokatzeko daukagun indarra murriztu egin dela, eta, aldi

berean, gure elkartasunak langile munduarekin izandako lotura ere hautsi egin dela. 509

Etengabe eskaintzen zaio gizakiari Esau-ren tentazio zaharra, alegia, oinordekotza platerkada dilistaren truke saldu zue-narena. Langileak ordena berri baten alde dituen itxaropenen eta eskubideen aurretik tentazio hori egoten da, berehalako abantailak lortzeko aukera aprobetxatzekoa. 510

Oinordekotzaren edo platerkada dilistaren arteko aukera bibilikoa etengabe azaltzen zaio gizakiari, eta bilakaturik agertzen da hainbat koiuntura historikotan, kanpo ñabardura eta ñabardura osagarri desberdinekin. 511

Erosotasuna, nabarmenkeria, luxua eta irioatea garapenaren emaitza dira, garapena giza-aurrerabiderako eta ongizaterako bitarteko eta abiapuntutzat hartu beharrean helburutzat hartzen denean. 512

Azelako droga dugun dirua, zeren dirua lortzeko estudiatu, lan egin eta denetarik asmatzen baitu norberak, giza duintasuna, lanerako eskubidea, justizia sozialaren eskakizunak eta halako gauza errespetagarriak ahotan hartuta; baina, azelako samur ahazten diren gauza horiek behin dirua eskuratu eta erabili, prostituitu eta edozein zirtzileriarenekin nahiz apetaren truke aldatzeko, orduan nahikoa izaten baitugu, geure burua babes-teko, «nirearekin nahi dudana egiten dut» esatearekin. 513

Ez dezagun ahantzi: kooperatibek eta kooperatibistek arrakasta izaten jarraituko dute baldin eta kooperatibako kideen giza gaikuntzan eta kapitalizazioaren aurrerapenean inoren atzetik gelditzen ez badira, eta, betiere, nork bere jardura betetzeko maila egokia ziurtatzen badu. 514

Kontuan izan behar da herri azpigaratuetan industriak sortzeko ezin dela lansari justizia eta halako ideia abstraktuekin hasi. Kapitalik ez daukaten herriek produzitzen dutena baino gutxiago gastatzen ikasi behar dute. 515

Ezinbestekoa da aurreztean oinarritutako austeritatea, aintzat hartzeko moduko garapen harmonikoa lortu ahal izateko. 516

Bistan dago aurrezteak bertute bikaina dela, eta haren inguruan beste bertute askok agertu behar duela beti. 517

Kreditu kooperatibak berebiziko garrantzia dauka mugimendu kooperatiborako. Hori da langileek daukaten bidea mugimendu kooperatiboari laguntzeko. 518

Inbertsio tasak, eta horien ondoriozko indartzeak, besteekiko elkartasunaren testigantzarik onena emateko daude, eta badakigu inbertsio tasa horiek existituko direla baliabide batzuk berehala gozatzeari uko egiteko gai garen neurrian. 519

Enpresa modernoak, hasierako kapital batzuk ez ezik, etengabe berritutako ahaleginetan oinarritutako finantzaketa ere behar du. 520

Autofinantzaketa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da enpresaren dinamika eta asmo handikoa, halaber, bete ahal izango dituen helburuak. Sakrifikatzen dugu oraina etorkizunean, pertsona kolektibitatean. 521

Izatez, prestakuntzaz eta erabileraz, autofinantzaketa da aitortu beharreko eskubide ugarien erdigunea, interesdun guztien parte hartzearekin ziurtatuta eta antolatuta. 522

Hezkuntzak, lanak eta aurrezteak hain ematen dute desberdin belarrira, ezen gai bakar gisa aztertzea kontraesana di-

rudien; hala ere, arazo berari dagozkion hiru dimentsio edo aspektutzat jo behar ditugu: gizakien eta herrien sustapen sozialaren arazoari loturiko dimentsio edo aspektutzat. 523

Garabidean den gizarte baten jauzia hutsean gera daiteke aurrezkirik eta inbertsiorik egon ezean. 524

Aurrezpena eta lana, atzoko eta gaurko egunean etenik gabe uztarturik; iragandako belaunaldiak egungoei eskua ematen; atzoko sakrifizioa eta ahalegina gaurko egunean konpentsatuta; edo egungo sakrifizioa, bihar goretsiko duguna. 525

Askotan esaten dugun legez, langileak eta enpresaburuak gara; ez gara langileak enpresaburu bainoago, hain zuzen ere, baldintzatzaile arrotzetatik askatzea aukeratu dugulako. 526

Langile Enpresaburuok ohorezko lekua izan dezakegu eta izan behar dugu herrialdearen garapenean, arazoen gestioan eta gidaritzan; batez ere, garbi utzi behar dugu gaur egun Langileek heldutasuna daukatela eta beharrezkoa dutela emantzipazioa: ezin da atzeratu esanez adin txikikoak direla edo ez daudela prestaturik. Lana da beti egunean dagoen blasoi bat, indar bat. 527

5.4. **Beti garatzen ari den esperientzia**

Gure eskualdeko herriek badute lanerako ahalmen handia, asoziazio zentzu indartsua, euskal herria ezaugarritzen duen zentzu komun eta praktikoa eta denetariko helburu sozialen bila diharduten erakunde komunitario txiki eta handien oparotasuna; hori dela eta, komunitateok ederki uler dezakete sustapenerako deialdi hau.

Hala ere, orain artean, gure herrien oparotasun eta balio potentzial horri guztia ez da bide natural eta egokian jarri,

5. Enpresa kooperatiboa

ez delako interpretatzen jakin izan, edo, nahi izanez gero, ez zaiolako adierazpide eta gauzatze zehatz bat eman erakunde konkretuetan, erakunde horien inguruan ahalegin bat galbanizatzeo, jardun bat justifikatzeko. 528

Nahi eta ezinean, amestutako bideari ekin ezinik iratzartu ziren gizakiek ahaztu, alperrik galdu edo baztertutako hainbat eta hainbat aukera aprobetxatu dugu. Aukerarik gabeko hainbat eta hainbat bokazio. 529

Kooperatibak ez ziren sortu ez gerrillari sozial gisa jarduteko ez gotorleku burges gisa hondatuz joateko, baizik eta giza balioak eta balio sozialak bizirik eta jardunean mantentzeko, berritzeko gaitasuna duen eta zorte hobea merezi duen antzinarako Herri zaildu baten barruan. 530

Kooperatibismoa abangoardiako elementutzat hartu beharra dago langile mugimenduaren barruan eta langile guztiek izan behar dute kooperatibako prestakuntza eta administrazio esperientziaren onuradun, arazoak hobeto estudiatu eta proiektatzeko. 531

Kooperatibismoa ez da helburu bat, bitarteko bat baizik; instituzio bat da; tresna aproposa da bizitza ekonomiko eta sozialean ideal batzuk hezurmamitzeko, kontuan izanik idealon ontasuna inork ezin duela, modu jator eta zintzoan, zalantzan jarri, edo kontuan izanik, behintzat, idealok badutela besteen onarpena. 532

Kooperatibek arazo batzuk konpontzen dituzte, ez arazo guztiak. Kalifika ditzagun kooperatibak konpontzen dituzten arazoen arabera eta gero eta arazo handi eta sakonagoei aurre egiteko daukaten ahalmenaren arabera. 533

Irudipena daukagu gure eskualdeko giza talderen baten arretagune bilakatu direla kooperatibak eta sarri komentario arin eta negatiboak egiten dituztela kooperatibei buruz, erakutsi ohi dituztenak bezain aitorgarri eta egiaztagarriak ez diren arrazoiak tarteko. Gure eskualdean garrantzi handia hartzen dabil langileak ematen ari diren ikasbidea arlo hauetan: gaitasun eraikitzailean, herrialdearen garapenean egiten ari diren ekarpenean, eta lan eta gizarte erlazioak ezarri eta arautzeko bestelako metodo batzuen bideragarritasunean. 534

Gure kooperatibismoa, formalki kooperatibistak direnek eta kooperatiben aurkakoek egiten ari dira, azken finean, komunitate bateko kide garen eta herri bera osatzen dugun guztiok. 535

Barne etsaiak dira, mikrobioen moduan, bizia suntsitu eta organismo biziari heriotza dakarkiotenak. 536

Kooperatibismoaren egunsenti honetan, egin gura dena garrantzitsuagoa izan daiteke egiten dena baino. 537

Garapenari begira, planteamendu kooperatiboa erradikala da eta planteamendu horretan jarraitzaileak zein kideak modu integrean elkartzeko joera nabarmentzen da, lan eta ekonomia arloan, arlo pertsonal eta komunitarioan, ondorioz, arrakastarik edo porrotik borobilenaren aukera nagusitzen da; espiritu indartsuak, edo, gutxienez, erreka ala zero jotzeko gizaki deliberatuak egotea eskatzen du. Hori dela eta, ez da denontzako formula bat; baina egin genezakeen hutsegiterik handiena, eskakizunak ahulenen parean jartzea izango litzateke, hala egin ez gero ezinezkoa litzateke-eta maila handirik lortzea. 538

Oro har, kooperatibak eratzeko eta bizi aktiboan murgiltzeko, ez dira egokiak beste enpresa edo molde juridiko batean arrakasta izateko bermez jarduteko gai ez direnak. 539

Arriskuren bat hartu ezik, ez da ezer lortzen. 540

Kooperatibismoa, funtsean, esperientzien prozesu organikoa da eta bere ezagugarria da balio moralekiko morrontza, giza-
kia, gizaki gisa, prozesu eta jarduera ekonomiko guztiek di-
tuzten beste faktore gutxi-asko instrumentalen gainetik jar-
tzea. 541

Kooperatibismoa esperientzia prozesu organikoa da, non kon-
tua baita giza jarduerak, jarduera sozio-ekonomikoak, giza balio
gorenen inspirazioa eta erregulazioa onartzea. 542

Eraginkortasun hutsa ez da gizatasunaren sinonimo. 543

Kooperatibismoa, edozein ikuspuntutatik begiratzen zai-
ola ere, gaur egungo doktrina eta posizioa hartzea da Koope-
ratibismoak dituen aukerei dagokienez, ez dugu kikildu behar
iraganean lortutakoak iraupen gutxikoak izan direla ikusi-
ta, kontuan hartuta edozein doktrina edo sistemaren hegemo-
niaren faktoreak hezkuntza faktoreak direla, eta gure hezkun-
tza sistema osoa eta, ondorioz, gure erakundeen esparru osoa,
komunitatea indartzearen aurka agertu direla eta posizio in-
dibidualistekin, berriz, hagitz eskuzabalak, onberak eta akuila-
tzaileak, giza askatasun eta elkartasunaren oinarriekin horren
uzkur agertu diren bitartean. 544

Mugimendu kooperatiboa gertaera igarokorra izango da bal-
din eta periferia sozialera hedatzen eta garatzen ez bada, eta,
ondorioz, hezkuntzaren arloan eta harreman sozial zein eko-
nomikoen arloan errotzen ez bada. 545

Espesientzia hau gizakiarengan eta gizakiaren gaitasunean
konfiantza jartzen duen espiritu berri batekin lotuta dago.
Kasu honetan, biziberritu egiten dira askatasunaren, duin-

tasunaren eta justiziaren zentzua, zeinak ezelako dudarik gabe egiaztaturik baitaude gure lurreko gizakien idiosinkrasiaren adierazle diren erakunde tradizional eta demokratikoe-tan. Gure ezaugarrietako bat zentzu praktikoa izan da, auke-ren alorrean jokatzeko jakitea, idealez arduratuta eta idealoi uko egin gabe. Denon onerako, aukerak biltzen eta ez alperrik galtzen jakin dugu. Elkartze prozesuak ez dira bideragarriak neurritasun barik, batzuek eta besteek onartu behar dituzte eta, normalean, denek sakrifikatu behar dute beren posizio-tik zerbait. Erradikalizazioek hautsi egiten dituzte gure he-rriaren kualitatetik konstanteenak eta herritarren giza nahiz gizarte bertuteak. Horixe da baieztatzen eta desiratzen du-guna, kontuan izanik herri honen espirituren berezitasunak zeintzuk diren: ekintzara jotzea espekulaziora bainoago; au-rrera egitera, menperatzera bainoago; askatasuna, foruak eta lanean nahiz lanaren alde nork bere burua forma askotan gauzatzeko bizi espazioa maitatuz eta arretaz zainduz, denon mesedetan. 546

Kooperatiba egunero-egunero berreraiki eta berritu behar da. 547

Gure kooperatiba saioa horixe da: askatasun eta zuzentasun gi-roan langileek sorrarazitako elkartasun erakundeen taldea. 548

5. Enpresa kooperatiboa

Ohar bibliografikoa

Iturriak eta aipamen sistema

Eskuliburu honetan jasotako esakune eta gogoeta guztiak Jose M. Arizmendiarrietaren idatzien bildumatik atera dira. Bilduma J.M. Mendizabalek (Euskadiko Kutxa) egin zuen eta 15 liburukik osatzen dute (horietako bat 1978an inprimatu zen eta hamalau multikopiatu daude datarik gabeko edizio mugatu batean). Bilduma honetan, Arizmendiarrietaren idatzia zazpi atal nagusiko sailkapen tematiko bati jarraituz antolatuta daude. Atalok jarraian adierazi ditugu, zein bere laburdurarekin:

ASH (inpr. lib. bak.) Apostolutza Sozialeko Hitzaldiak	
EK (I, II, III)	Euskadiko Kutxa
EP (I, II)	Eskola Profesionala
HK (I, II, III, IV)	Heziketa Kooperatiboa
LG (I, II)	Lehen Gauzatzeak
SS (I, II)	Sermoiak
H	Hainbat

Antologia honetan jasotako aipuak zenbakiturik daude, interesa duen irakurleak, une oro, ateratako aipu bakoitza aipu horri dagokion jatorrizko testuinguru osoarekin erkatu ahal izateko. Zenbaki horiek goian aipatu dugun Arizmendiarrietaren idatzien bildumara jotzen dute. Hala, hemen aipatutako lehen gogoetari 001 zenbakia dagokio eta, jarraian datorren aurkibidean, LG, I, 11ra bidaltzen gaitu. Aipamen sistema hau hone-laxe ulertuko da:

001 = LG I, 11; hau da, ikus liburukien taldea Lehen Gauza-
tzeak, I. liburukia, 11. orrialdea.

002 = EP II, 3; hau da, ikus liburukien taldea Eskola Profesio-
nala, II. liburukia, 3. orrialdea.

Hona hemen aipu bakoitzari dagokion jatorrizko iturria:

Gizakia eta gizartea

1. Pertsona

001 = LG I, 11	026 = HK II, 190	051 = SS I, 173/174
002 = EP II, 3	027 = HK I, 124	052 = HK II, 46
003 = SS I, 166	028 = HK III, 294	053 = EP I, 228
004 = EP I, 60	029 = EP I, 327	054 = HK II, 244
005 = SS II, 35	030 = HK I, 98	055 = LG I, 116
006 = EK III, 62	031 = HK II, 206	056 = LG II, 148
007 = HK II, 171	032 = EK III, 28	057 = HK I, 141
008 = EK III, 250	033 = HK I, 103	058 = LG II, 155
009 = EP II, 8	034 = HK II, 110	059 = LG II, 155
010 = HK II, 26	035 = EK III, 269	060 = LG I, 186
011 = EP II, 292	036 = SS II, 258	061 = LG II, 150
012 = EP I, 47	037 = SS I, 60	062 = LG II, 154
013 = SS II, 268	038 = EP I, 51	063 = LG II, 159
014 = LG I, 106	039 = SS I, 146	064 = LG II, 159
015 = SS I, 185	040 = HK III, 83	065 = LG II, 79
016 = EP II, 328	041 = HK III, 168	066 = LG II, 138
017 = EP I, 20	042 = HK II, 9	067 = LG II, 106
018 = EP I, 298	043 = EP I, 167	068 = LG II, 83
019 = HK II, 27	044 = HK IH, 180/181	069 = LG II, 105
020 = HK II, 76	045 = LG II, 15	070 = LG II, 83
021 = HK II, 26	046 = SS I, 182	071 = LG II, 85
022 = SS II, 243	047 = SS I, 161	072 = LG II, 139
023 = EP II, 338	048 = EP I, 29	073 = LG II, 41
024 = HK IH, 152	049 = SS I, 160	
025 = HK I, 116	050 = SS I, 173	

2. Askatasuna

074 = EK I, 232	084 = SS I, 112/113	094 = ASH, 213
075 = EK I, 234	085 = EK I, 274	095 = SS I, 276
076 = SS I, 60	086 = HK IV, 29	096 = EK III, 165
077 = HK II, 244	087 = HK IV, 207	097 = HK II, 163
078 = HK II, 125	088 = SS II, 147	098 = HK I, 200
079 = HK IV, 173	089 = HK I, 253	099 = HK II, 31
080 = HK II, 8	090 = HK IV, 30	100 = HK IV, 19
081 = HK IV, 176	091 = HK IV, 85	101 = EK III, 111
082 = HK I, 327	092 = SS I, 255	102 = HK I, 200
083 = SS I, 113	093 = HK III, 178	

3. Erantzukizuna

103 = HK IV, 173	112 = EK I, 199	121 = SS II, 30
104 = HK IV, 175	113 = HK IV, 225	122 = SS I, 127
105 = HK IV, 197	114 = EK III, 178	123 = LG I, 106
106 = HK IV, 195	115 = HK IV, 12	124 = HK I, 328
107 = HK III, 235	116 = HK IV, 40	125 = HK I, 251
108 = LG I, 98	117 = EK II, 63	126 = HK IV, 138
109 = EK II, 100	118 = HK I, 232	127 = HK IV, 149
110 = HK II, 237	119 = EK II, 45	
111 = EK II, 99	120 = EK III, 263	

4. Morala

128 = HK IV, 88	142 = EK I, 284	156 = SS II, 223
129 = HK I, 233	143 = EK III, 28	157 = SS II, 71
130 = HK I, 233	144 = HK IV, 141	158 = SS II, 141
131 = EP II, 72	145 = HK IV, 98	159 = SS II, 143
132 = SS II, 258	146 = HK III, 161	160 = SS I, 103
133 = EP I, 27	147 = EK III, 248	161 = HK I, 233
134 = HK I, 200	148 = HK I, 325	162 = SS II, 127
135 = SS I, 181	149 = HK IV, 44	163 = SS II, 241
136 = HK I, 200	150 = SS II, 307	164 = SS II, 243
137 = LG II, 16	151 = SS II, 70	165 = HK IV, 120
138 = HK I, 52	152 = SS II, 266	166 = SS II, 134
139 = LG II, 19	153 = SS I, 218	167 = SS I, 166
140 = HK I, 233	154 = HK IV, 138	168 = LG I, 178
141 = SS II, 5	155 = HK I, 201	169 = SS I, 214

5. Hezkuntza

170 = SS II, 95	190 = HK I, 322	210 = SS II, 93
171 = ASH, 159	191 = HK I, 156	211 = EP II, 202
172 = EK III, 248	192 = HK I, 321	212 = EK I, 50
173 = EK III, 187	193 = EP II, 335	213 = EP I, 64
174 = EP II, 258	194 = EP II, 336	214 = EP I, 64
175 = EP II, 107	195 = HK II, 110	215 = SS II, 94
176 = SS II, 89	196 = EP I, 84	216 = EP I, 269
177 = EK III, 269	197 = EP I, 247	217 = EP II, 258
178 = EP I, 22	198 = EP II, 4	218 = EK III, 121
179 = EP II, 71	199 = EP I, 256	219 = EP II, 262
180 = HK II, 77	200 = SS II, 99	220 = EP II, 91
181 = EP I, 19	201 = ASH, 103	221 = HK I, 91
182 = EP II, 260	202 = EK I, 50	222 = EP II, 109
183 = EP I, 19	203 = EP I, 272	223 = EP II, 86
184 = EK III, 248	204 = EP I, 228	224 = HK II, 23
185 = EK III, 248	205 = ASH, 103	225 = HK II, 133
186 = EP I, 271	206 = EP I, 117	226 = HK II, 111
187 = EP II, 336	207 = EP I, 335	227 = HK I, 8
188 = EP II, 188	208 = HK I, 323	
189 = EP II, 4	209 = SS II, 95	

6. Bizitasunaren ezaugarria

228 = EK III, 249	240 = EK III, 38	252 = LG II, 15
229 = EP II, 52	241 = EK III, 265	253 = EP II, 10
230 = EP II, 88	242 = HK I, 320	254 = EK I, 281
231 = EP II, 64	243 = HK II, 10	255 = EK I, 208
232 = EP I, 146	244 = HK III, 304	256 = EK I, 238
233 = HK IV, 126	245 = HK III, 216	257 = EK I, 145
234 = EP I, 229	246 = HK I, 238	258 = HK I, 218
235 = EP II, 330	247 = HK III, 181/182	259 = EK II, 99
236 = LG I, 121	248 = HK III, 161	260 = HK IV, 216/217
237 = ASH, 25	249 = HK III, 158	261 = ASH, 25
238 = SS II, 252	250 = HK III, 63	262 = EK I, 257
239 = EK III, 59	251 = LG I, 97	

Lana eta Enpresa kooperatiboa

1. Lana

263 = LG II, 99	273 = HK I, 95	283 = EK I, 275
264 = EP I, 298	274 = HK I, 130	284 = EK III, 267
265 = HK II, 138	275 = HK I, 142	285 = EK III, 266
266 = HK I, 25	276 = EK I, 190	286 = HK I, 246
267 = EK III, 3/4	277 = EP II, 107	287 = LG II, 143
268 = HK III, 307	278 = HK I, 76	288 = LG II, 81
269 = HK II, 169	279 = EP I, 116	289 = LG II, 146
270 = HK IV, 112	280 = ASH, 94	290 = EP I, 41
271 = HK II, 138	281 = HK I, 161	291 = EP I, 232
272 = EK III, 68	282 = EP I, 206	

2. Batasuna

292 = EK III, 123	311 = HK I, 307/308	330 = HK II, 165
293 = HK I, 155	312 = EK III, 126	331 = HK II, 195/196
294 = EP I, 198	313 = EP I, 84	332 = HK III, 8
295 = LG I, 98	314 = SS I, 224	333 = HK I, 232
296 = HK I, 15	315 = EK I, 99	334 = HK I, 182
297 = LG I, 171	316 = EK III, 13	335 = HK II, 237
298 = HK I, 103	317 = HK I, 268	336 = HK I, 241
299 = HK I, 86	318 = HK II, 72	337 = EK III, 149
300 = SS II, 260	319 = EP I, 68	338 = HK III, 233
301 = HK II, 34	320 = EP I, 201	339 = EK III, 110
302 = HK I, 322	321 = EK III, 269	340 = HK IV, 179
303 = EK I, 108	322 = EK I, 87	341 = EK III, 114
304 = EK III, 21	323 = EP II, 120	342 = HK IV, 179
305 = EK I, 232	324 = LG I, 107	343 = HK I, 312
306 = EK I, 234	325 = HK III, 196/197	344 = HK II, 56
307 = HK IV, 152	326 = HK II, 243	345 = HK I, 311
308 = EP II, 73	327 = HK III, 244	346 = HK I, 311
309 = EK I, 249	328 = HK I, 66	347 = HK I, 312
310 = HK I, 310	329 = HK II, 7/8	348 = EK I, 133

3. Utopia eta iraultza

349 = EK I, 269	361 = EK III, 264	373 = HK IV, 73
350 = HK III, 312	362 = EK I, 200	374 = EK I, 296
351 = HK III, 312	363 = HK IV, 113	375 = EP II, 118
352 = HK III, 327	364 = SS II, 152	376 = EP II, 118
353 = HK II, 156	365 = HK II, 10	377 = HK IV, 112
354 = EK I, 50	366 = HK IV, 70	378 = EK I, 284
355 = HK IV, 222	367 = SS II, 147	379 = EK III, 65
356 = SS I, 214	368 = SS II, 150	380 = EK I, 221
357 = HK IV, 142	369 = SS II, 259	381 = EK I, 223
358 = HK IV, 51	370 = HK IV, 69	382 = SS I, 10
359 = EK I, 38	371 = HK III, 177	383 = HK II, 246
360 = EP IV-2, 118	372 = EK III, 264	384 = EP II, 119

4. Errealismoa eta ordena berria

385 = ASH, 225	405 = LG I, 106	425 = HK II, 21
386 = HK IV, 222	406 = LG I, 74	426 = EP II, 182
387 = EK III, 225	407 = HK III, 256	427 = EK I, 273
388 = HK IV, 176	408 = EK II, 100	428 = EP II, 116
389 = EK I, 235	409 = LG I, 213	429 = HK IV, 207
390 = HK IV, 156	410 = HK III, 312	430 = EK I, 196
391 = EK III, 263	411 = HK IV, 137	431 = HK III, 302
392 = EP II, 181	412 = EK III, 221	432 = HK I, 302
393 = HK III, 327	413 = EK III, 221	433 = HK I, 253
394 = HK IV, 65	414 = EP I, 204	434 = HK I, 306
395 = EK II, 100	415 = HK I, 53	435 = HK I, 36
396 = HK IV, 229	416 = EK III, 24	436 = EK I, 90
397 = HK IV, 65	417 = EP II, 22	437 = EP II, 37
398 = HK III, 207	418 = EK III, 61	438 = EP II, 335
399 = HK IV, 112	419 = HK IV, 42	439 = LG I, 187
400 = EK I, 37	420 = HK IV, 76	440 = HK II, 117
401 = EK I, 126	421 = EK I, 86	441 = HK IV, 222
402 = HK IV, 87	422 = EP I, 119	442 = HK I, 333
403 = EP II, 116	423 = EP II, 151	443 = HK II, 69
404 = LG I, 201	424 = HK IV, 224	444 = EK I, 141

5. Enpresa kooperatiboa

445 = HK II, 7	480 = HK III, 168	515 = EP II, 219
446 = HK II, 166	481 = EK I, 275	516 = HK I, 236
447 = HK I, 63	482 = HK I, 248	517 = HK I, 28
448 = C IV, 182	483 = HK I, 215	518 = HK I, 305
449 = HK II, 166	484 = HK III, 151	519 = HK II, 192
450 = HK III, 95	485 = HK II, 193	520 = HK III, 35
451 = EK III, 63	486 = EK I, 38	521 = HK III, 254
452 = HK I, 262	487 = HK I, 164	522 = HK II, 170
453 = EK I, 143	488 = HK I, 196	523 = CL PI, 49
454 = EK III, 38	489 = EK I, 128	524 = HK IV, 11
455 = HK I, 166	490 = EK III, 10	525 = EK I, 53
456 = HK I, 64	491 = EK I, 179	526 = HK III, 292
457 = HK III, 316	492 = HK II, 217	527 = HK III, 259
458 = HK I, 52	493 = EK III, 158	528 = EK I, 118
459 = EK III, 9	494 = EK III, 147	529 = EK III, 269
460 = EK I, 155	495 = EK III, 141	530 = EK I, 279
461 = HK I, 63	496 = EK III, 139	531 = EK I, 109/110
462 = EK III, 3	497 = HK II, 40	532 = EP II, 4
463 = EK I, 147	498 = HK III, 292	533 = HK III, 302
464 = EK III, 65	499 = EK II, 135	534 = HK III, 300
465 = HK II, 64	500 = EK III, 135	535 = HK III, 65
466 = EK III, 250	501 = HK I, 329	536 = SS II, 191
467 = HK III, 185	502 = EK III, 134	537 = HK III, 65
468 = HK II, 25	503 = HK I, 304	538 = HK II, 191
469 = EK III, 154	504 = HK I, 303/304	539 = EK III, 153
470 = HK I, 122	505 = HK I, 302/303	540 = EK III, 12
471 = HK II, 97	506 = EK III, 3	541 = HK II, 190
472 = HK IV, 115	507 = EK III, 129	542 = HK I, 14
473 = HK I, 276	508 = HK I, 330	543 = HK IV, 63
474 = HK I, 69	509 = HK II, 22	544 = EK I, 147
475 = HK III, 287	510 = HK II, 40	545 = HK II, 23/24
476 = HK I, 118	511 = HK III, 124	546 = EK I, 241/242
477 = HK I, 169	512 = HK III, 310	547 = HK II, 192
478 = HK I, 131	513 = HK III, 311	548 = EK I, 247
479 = HK III, 232	514 = HK II, 23	



GIZATASUNA
LANEAN

MONDRAGON

Finantzak
Industria
Banaketa
Ezagutza